1919·2019

ARGIA

Nola irabazi kartzelari

SANTI COBOS, PRESO OHIA: 26 URTE GILTZAPEAN, HAMAIKA MUTIN ETA IHESALDI SAIAKERA ETA BALDINTZA GUZTIEN GAINETIK, LIBRE

23-28.orriak

#2.668 | 2019/12/01 | 3,90 €

Petrolio putzuak hustean, nork desmuntatu behar ditu azpiegiturak?

10 I INGURUMENA

Euskaratik eta euskaraz ahalduntzen Bilbon

38 I BERBALAGUN FEMINISTA

Kaskezur: Deserosotasunaren potentzial sortzailea

46 I MUSIKA

Euskarak lotzen gaitu,
elkartu, anaitu,
gertutasuna sortu,
tarteak amaitu
izan nahi dugun hura
izateko gaitu
euskaraz egiteak
hori lortzen baitu
konpartitzen dugunak
aberasten gaitu.

EUSKARAZ ERE,
NATURALTASUNEZ

LABORAL
kutxa

ARGIA

2.668 zenbakia I Abenduak 1, 2019

Panorama

04 I ASTEKO ARGAZKIA
06 I AKTUALITATEA
07 I HUMANITATEAREN UNE GORENAK
07 I EZ HANKA EZ BURU
08 I EKONOMIAREN TALAIAN

AZALEKO ARGAZKIA:
DOS POR DOS

Iritziak

19 I ASIER BLAS MENDOZA
20 I ANE ABLANEDO LARRION
21 I IÑAKI MURUA
21 I EDU ZELAIETA ANTA
22 I MARIA COLERA INTXAUSTI

SAILEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK:
CLIPART COURTESY FCIT

Finkoak

40 I BIZI BARATZEA
42 I ARGIA KOMUNITATEA
44 I DENBORAREN MAKINA
52 I KULTUR-KRITIKAK
54 I ZUZENEKO EMANALDIA
55 I DENBORA-PASAK
56 I ARGI-KONTRA: VICKY MIRÓ JULIÀ
58 I BERANDUEGI

GREENPEACE

10 I **PETROLIO PUTZUAK AMAITZEAN, NORK DESMUNTATU BEHAR DITU AZPIEGITURAK?**
50 urtez Shell konpainiak Ipar Itsasoan 'Brent' izeneko petrolio erreserba ustiatu ostean, agortzen hasi da. Galdera berriak ekarri ditu horrek: iturriok agortutakoan, egitura handi hauek nork eta zein preziotan desmuntatu behar ditu?
Pello Zubiriaren erreportajea.

Elkarrizketak eta erreportajeak

12 I JEAN-PAUL BRONCKART
"Mundua ez da konplikatu, hari begira bizi den zientziak konplikatu ditu gauzak"
Miel A. Elustondo

23 I SANTI COBOS
Nola atera bizirik espetxeko infernutik
Zigor Oleaga

29 I BEÑAT ARZADUN OLAIZOLA
"Kooperazioa da punta-puntako neurokirurgia egitearen parekoa"
Amaia Zabala Tolosa

34 I VALERIE MASSON-DELMOTTE
"Gaur egungo ekintzen heina arras eskasa dugu klima aldaketaren erronkari aurre egin ahal izateko"
Jenofa Berhokoirigoin

38 I BERBALAGUN FEMINISTA BILBON
Feministak euskaratik eta euskaraz ahalduntzen
Malen Aldalur Azpillaga

46 I KASKEZUR MUSIKA TALDEA
Deserosotasunaren potentzial sortzailea
Gorka Bereziartua Mitxelena

49 I PANPINA, ANTZEZLANA
Nor naiz begiratzen ez banaute?
Ainhoa Mariezkurrena Etxabe

OLATUKOOP
EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN SAREKO KIDE GARA

ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

Jabetza
Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaiña Taldeko partaidea
Lehendakaria
Bego Zuza
Erredakzioa
Amaia Lekunberri, Axier Lopez, Eneritz Arzallus, Estitxu Eizagirre, Gorka Bereziartua, Igor Galarza, Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner, Lander Arbelaitz, Mikel Asurmendi, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga
Diseinua
Maitane Gartziandia
Argazkilaria
Dani Blanco
Produkzioa eta inprimaketa
Antza S.A.L.
Administrazioa:
Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarte
Salmenta
Idoia Arregi, Karlos Olasolo, Olatz Korta
Idazkaritza
Aloña Soraluze, Bego Zuza
Web garapena
Asier Iturralde
Informatika
Iametza interaktiboa, S.L.

Lege gordailua
SS 837-2012
ISSN
0213-909X
Batzorde parekidea
72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoak
komertzial@argia.eus
harpide@argia.eus

Telefonoa
943371545

Gipuzkoa
Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria
Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa
Xalbardin baita. 64122 Urruña
Nafarroa
Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina
31001 Iruñea

Ametzagaiña taldeko kidea da ARGIA honako enpresekin batera:

antza KOMUNIKAZIO GRAFIKOA
iametza interaktiboa
ADUR software productions

Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitara ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero. Are gehiago, gure edukiak ahalik eta gehien zabaltzea nahi dugu.

CC BY SA

Lizentzia hau soilik ARGIAren edukientzat da baliagarria, baliteke beste testu eta argazki batzuek lizentzia hau ez izatea.

Baimenik gabekoen arteko elkartasuna

JAVI JULIO / NERVIO PHOTO AXIER LOPEZ

Libiatik baimenik gabe itsasoratu diren 78 pertsona Maltako uren inguruan jaso ditu erreskaterako baimenik gabe Euskal Herritik abiatu zen itsasontziak. Patu bera izan dute egun horretan beste 135 lagunek. Xantza hori izan ez dutenen kopurua eta izenak Mediterraneoaren hondoan dautza, beren gorpuekin batera ahaztuta. Amets europarraren azken mugara bizirik heltzeak gobernuz kanpoko zori kontua izaten jarraitzen baitu Mediterraneoko hobi komunean.

EBXC
IMO 9248851
#MAY DAY TERRA NEO
RESCUE ZONE

KATALUNIAK ERAKUSTEN DIGU HERRITARREK AGENDA MARKATZEKO GAITASUNA DUTENEAN, PROZESU HORI NORABIDE ETA ERRITMO ONEAN DOALA; ALDIZ, AGENDA ALDERDIEN ESKU GERATZEN DENEAN, PROZESU HORI GELDOTU EGITEN DA HAN

Unai Apaolaza
(Ehun mugimendua)

EZ DUGU GERRA MAITE, BADAKIGU ZER DEN, BAINA EZ DUGU UTZIKO GURE HERRIA HORRELA SARRASKI DEZATEN. PAZIENTZIA AGORTU DA. HORTAZ, ORAIN AUKERA GUZTIAK DAUDE MAHAI GAINEAN, BAITA BORROKA ARMATURA ITZULTZEA ERE

Mohamed Eluali Akeik
(Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoko lehen ministroa)

@EGUNEANBEHIN-EKO PARTAIDEEN ARTEAN ETB2KO BI LEHIAKETEN SARIEN ERDIAK BANA DITZALA EITBK. HORRA NIRE PROPOSAMENA

@urtziurkizu

YULAN ETA BERE FAMILIA ETXEGABETU DITUZTE, HORRETARAKO ESKAERA HELDU ZENEAN ORDAINKETA BAKARREAN ERE HUTS EGIN GABE ZIRENEAN. ERROTABIDEA PROMOTORAK EGIN DU ESKAERA HORI, NAFARROAKO GOBERNUAREN KONPLIZITATEAREKIN

Begoña Alfaro,
Nafarroako PAH

@PSABATHIE

Indarkeria matxistaren aurka kaleak hartu dituzte

ARGIA

Indarkeria sexistaren kontrako nazioarteko egunaren kari, Hego Euskal Herriko herrietan mobilizazioak egin dituzte egun guztian zehar. Ipar Euskal Herrian haatik, azaroaren 23an egin dituzte mobilizazioak, Frantziako #noustoutes kolektiboaren deiari segi. 300 bat lagun elkartu dira Baionan buruturiko manifestazioan. Milaka bildu dira Euskal Herriko herri eta hiriburuetan.

Besteak beste, "ez zaituztegu behar aske izateko" lemapean atera da Euskal Herriko Bilgune Feminista kalera, indarkeria intentsifikatzen ari den segurtasun eredua salatu eta ondokoa exijitzeko: emakumeen askatasuna eta bizitza duina bermatzeko baliabideak, prebentzioa, justizia eredu feminista eta gizon eta komunitate osoari ardura hartzeko urratsak. Euskal Herriko Neska* Gazteen sareak autodefentsa feministaren aldeko mezua jarri du erdigunean, "Zuen biolentziari, guk autodefentsa feminista" leloarekin. Astelehen goizean goizetik aritu dira ekintzak burutzen. Besteak beste, Gasteizko eta Leioako unibertsitateen sarrerak blokeatu dituzte, hezkuntza sistema patriarkala salatzeko asmoz.

Ipar Euskal Herrian larunbat goizetik gauera izan dira indarkeria sexista salatzeko ekimenak.Tartean, feminizidioen salatzeko, 300 bat lagun elkartu dira Baionako manifestazioan. Urte hastapenetik 117 emakume hil ditu indarkeria matxistak Frantziako Estatuan: Ipar Euskal Herriari dagokionez, hiru emakume dira aurten bikotekideak edo bikotekide ohiak eraildakoak; azkena, duela pare bat aste, Baionan.

Emakume hauen oroimenez, Baiona Ttikiko San Andres plazari izena aldatu diote feministek, "feminizidioen biktimen plaza" izendatuz. "2005. urtetik, 25 emazte erail ditu bortizkeria matxistak Ipar Euskal Herrian. Emazteak izateagatik erailak izan dira", Zutik kolektiboak oroitarazi duenez. Baionako suprefeturako hesietan ere zintzilikatu dituzte biktimen izenak, emakume hauek omentzeaz gain, indarkeria sexisten aurkako lana eraman ahal izateko ezinbestekoak diren baliabideak exijitzeko. Bizkaian ere mobilizatu dira larunbatean, 25 emakume taldek deituta manifestazioa burutuz, Santurtzitik Sestaora. ●

HUMANITATEAREN UNE GORENAK

Komunaren eguna

ARITZ GALARRAGA

Zutabe hau komunaren nazioarteko egunean idatzita dago –egunean, ezen ez komunean bertan–. Komuna, noski, bakargela ere deitu hori, norbere eginkariak egiteko lekua –eta ez, adibidez, Parisekoa, 1871n Frantziako hiriburuan agintea izan zuen gobernu iraultzailea–. Ez kezkatu, benetan, ez da garrantzitsua jakitea noiz izan zen egun hori: atzo izan zitekeen, edo bihar, egunero da zerbaiten eguna –gaur izatea zailagoa litzateke; jakingo genuke bestela, hain da handia ditxosozko egunekin ematen duten alamena–. Komunaren eguna, beraz, arazoa baita larria: toallatxoak edo zapi umelak, bastoitxoak edo makillajea kentzeko kotoia, ezin dira komunera bota, tapoiak eragiten dituzte estolda eta kolektoreetan. Mezua: komuna ez da zulo beltz bat –badaezpada ez nuke begiratuko hainbat etxetakoa–.

Ai, komuna. Zenbat une gogoangarri pasako genituen bertan –atseginak batzuk, beste batzuk estuagoak–. Horregatik bikain iruditzen zait Nazio Batuen Erakundeak komunaren eguna ospatzea. Zalantza gehiago sortzen dizkit yogaren egunak –zergatik ez tai-xi, feng shui eta abarrekoena?–. Edo atunaren egunak –zer gertatzen da hegaluzearekin?–. Bitxia egiten zait itsasoko jendearen eguna –zer da, itsaslamina, uhandreena?–. Edo eskifaiadun espazio-hegaldiena –diskriminatzen ditu, argiki, eskifaiarik gabeko espazio-hegaldiak–. Argiaren eguna ere badago –eta ez, ez da urriaren 12a–. Nelson Mandelaren eguna –noizko Arnaldo Otegirena?–. Adiskidetasunaren eguna ere bai –eta ez ozpintasunarena–, gaztetasunaren eguna –eta ez adin ertainarena–, demokraziarena –eta ez monarkia parlamentarioarena–. Pentsa, filosofiak eta telebistak eguna konpartitzen dute. Broma gutxi, Nazio Batuen Erakundeak ospatzen dituen egunak baitira horiek guztiak, komunarena barne. Egunero baitago zer ospatua. Komunera erregularki eta pozik joaten garela, luze gabe. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA
www.adurlarrea.com

"TORTURATZAILEEK NIRE EMAKUME GORPUTZA GUDA ZELAI BIHURTU ZUTEN"

NEKANE TXAPARTEGI ESTRAZIO ARRISKUAN DA SUITZAN

"Orduan torturatzaileek nire emakume gorputza guda zelai bihurtu zuten eta orain, bizi-iraundako tortura sexista salatu eta horren aurka borrokatzen dudalako jazartzen naute! (...) Ikusiko dugu zein aldetan kokatzen diren Suitzako agintari 'neutralak' oraingoan, torturaren aurka edo alde! Ezin baita orain artean bezala 'neutralitatearen' izenean torturatzaileekin kolaboratuz jarraitu". **ASTEASU (2019/11/20)**

EKONOMIAREN TALAIAN

Zeinek sortzen ditu grebak?

JUAN MARI ARREGI

2009tik hitzarmena izoztuta izan ondoren, berrogei bilera, 29 lanuzte, makina bat manifestazio eta hilabeteko greba deialdia beharrezkoak izan dira itunpeko hezkuntzan akordioa lortzeko. Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabako 9.000 irakasleri eta 107.000 ikasleri eragiten die akordioak, eta Lan Harremanen Kontseiluan izandako bitartekaritzari esker lortu da.

Bi irakasgai nagusi atera daitezke. Zergatik igaro behar izan dira bederatzi urte hitzarmena eguneratzeko? Zergatik patronala –pribatua zein publikoa– soilik mugitzen da greba eta mobilizazioak iragartzen direnean? Lehen irakasgaia: langile eta sindikatuek greba deitzen dute patronalaren eta administrazioaren jarrera immobilista ikusita, hauek nahiago izaten baitute langileak ernegarazi eta amore emanarazi. Hala, azkenerako mugitu dira, baina greba mahai gainean jarri dietenean, ez egun bat edo bikoa, hilabetekoa baizik.

Bigarren irakasgaiak zerikusia du langileek euren eskubideak defendatzeko dituzten baliabideekin. Beste behin, itunpeko hezkuntzako gatazkan nola erresidentzietako grebetakoan, ikusten ari gara greba eta mobilizazio irmoak direla patronala eta administrazioak derrigortzen dituztenak akordioa sinatzera.

Itunpekoen kasuan lotsagarria izan da EAEko lehendakariari eta hezkuntza sailburuari entzutea akordioak lortu direla “gobernuak hauspotutako elkarrizketari esker”. Lan gatazka luze horretan politikariok beste aldera begiratu izan dute, grebak eta mobilizazioak kriminalizatzen zituzten erasoen aurrean. Hilabeteko greba deialdiak akuilatu ditu denak. Langileek euren aldarrikapenak alboratzea bilatzen dute, eta horregatik, patronalak eta administrazioak sortzen dituzte greba horiek. ●

ANALISIA

Sanchez Dekretua, Espainiako “*Patriot Act*”

LANDER ARBELAITZ MITXELENA

Oinarrizko eskubideen urraketan jauzi kualitatibo bat eman du berriki Espainiako Estatuak. Beste bat. Hauteskundeetarako bost egunen faltan, Legebiltzarretik pasa gabe, urgentziazko lege dekretu baten bidez, internet zentsuratzen saiatzeko erregimen autoritario baten eskumenak eman dizkio gobernuak bere buruari. Enric Borràs kazetariak proposatu bezala, *Sanchez Dekretua* izendatu behar genuke, bere lotsakizunerako.

“Ordena publikoa” kontzeptu abstraktua arriskuan ikusten dutenean, 14/2019 Lege Dekretuarekin "edozein azpiegitura teknologikoren edozein mailatan kudeaketa zuzena” egiteko eskumena izango du unean uneko Gobernuak. Testuaren anbiguotasuna ez da kasualitatea. Bartzelonako Unibertsitateko irakasle eta Criptica elkarteko kide Enric Lujànen azalpenak baliatuko ditugu hitz potolo hauek deszifratzeko.

Batetik, telefono konpainia nagusiak estatuaren kontrolpera pasako lirateke "ordena publikoa berrezarri” arte. Telekomunikazio enpresa guztiek, legez, bi urtez erabiltzaile bakoitzaren geoposizio datuak gordetzen dituzte, estaldura ematen duten antenen erregistroaren bidez. Datu hauek oso delikatuak direla ulertuta, orain arte epaitegi baten agindua behar zen eskuratzeko. "Kudeaketa zuzena" kontzeptuarekin, aurreratu dute estatuak kudeatuko dituela kontuok. Agur botere banaketari!

Bestetik, esku-hartzea "edozein-mailatan" egingo dutela esanez, Lujànen ustez, atea irekitzen ari dira konexioa jende guztiarentzat “itzali” edo webgune batzuk blokeatu baino, agintarien ustez ordena publikoa desegonkortzen ari direnen konexioa modu selektiboan eteteko. Erabiltzaile "susmagarri" zehatz batzuk identifikatu eta saretik deskonektatzeko aukera izango dute –izan protesta batean daudenak, egun jakin batean leku zehatz egon zirenak, greba orokor baten egunean sindikatuen buruzagitza edo nahi badute, lurralde oso bat–. Aukerak infinituak dira, denak beldurgarriak eta intimitaterako dugun oinarrizko eskubidearen aurkakoak.

AEBetako *Patriot Act* 2001eko irailaren 11ko atentatuen ostean onartu zuten legeria libertizida izan zen, estatuari herritarrak zelatatzeko eskumena eman ziona George W. Bush askatasunzalearen eskutik. Oraindik indarrean da. *Sanchez Dekretua* Kataluniako protesten testuinguruan onartu badute ere –"ez da independentziarik izango, ez online ez offline"–, ez da ahaztu behar Espainiako Estatuko parte garen herritar guztien aurka erabiliko dutela behar izanez gero. Criptica elkarteak ondorengoa adierazi zuen: "Ezin dugu beste ondorio batera heldu, *Patriot Act* espainiarra onartu berri dute". Falta zitzaiguna. ●

NAFARROA ARENA

"LUZERAKO GERATUKO DEN ORBAINA"

25 URTE, 1.100 KONTZERTU. Lekunberriko gaztetxean lehen kontzertua ematetik, Nafarroa Arenan asteburuan 24.000 lagun inguru biltzera pasatu dira. Mende laurden igaro da tartean, hamar disko kaleratu eta kasik 1.100 kontzertu eman dituzte bitarte horretan. Milagarrena munduaren beste puntan gainera, Australian. Taldekideak aldatu dituzte orduz geroztik eta, Gorka Urbizu erreferente nagusi izanik, hiruko gisa aritu dira azken urteotan. Iazko udazkenean iragarri zuten "etenaldi mugagabe" batean murgilduko zela taldea, eta azaroaren 23a gorriz markatzeko eskatu zieten zaleei. Hura izango zen taldearen agurra, tartean beste 60 kontzertu inguru eskaini dituzten arren Ikusi Arte biraren barnean.

NAFARROA: ITZALPEKO SARIEN ZAMA

1.970 milioi

Bideko Autobidea (Iruñea-Logroño), Jacako Autobidea eta Nafarroako Kanalaren lehen faseak egiak daude, baina oraindik ia 2.000 milioi euro ari da ordaintzen Nafarroako Gobernua itzalpeko sari gisa.

100 milioi euro ordaintzen ditu urtero. Formula hau gastua hasieratik bere gain hartzea baino askoz garestiagoa da. Nafarroako Gobernuko urteko aurrekontua 4.000 euro ingurukoa da.



Euskaraldia lantoki eta elkarteetara

Euskaraldiaren bigarren edizioa 2020ko azaroaren 20tik abenduaren 4ra egingo da. Lehen edizioan bezala, Belarriprest eta Ahobizi figurak izango dira protagonista, baina datorren urtean ahalegin berezia egingo da lantokietan euskaraz aritzeko guneak sortzeko.

Gehiago, gehiagorekin, gehiagotan lelopean egingo da bigarren edizioa, eta denetariko entitateen parte-hartze handiagoa bultzatzea izango da erronketako bat. "Ariguneak" sortuko dira horretarako, euskaraz aritzeko babesguneak, taldean jarduteko aukera eskainiko dutenak. Alegia, lehen edizioak banakako harremanak bazituen ardatz, bigarrenak taldekako ariketak ere jasoko ditu, euskararen erabilera sustatu aldera lantokietan, administrazio publikoan, kultur edota kirol taldeetan... Dena den, Ahobizi eta Belarriprest figurak izango dira oraingoan ere protagonista. Euskaraldian parte hartuko duten herritarrek txapa bana eramango dute paparrean.

ERAGIN HANDIA JARRERETAN

Euskaraldiaren lehen edizioak "nabarmen astindu zituen" bertan parte hartu zutenen hizkuntza jokaerak eta hiru hilabete geroago jarrera aldaketei "proportzio altuan eutsi egin" zitzaien. Horixe da *Euskaraldia: 11 Egun Euskaraz* ikerketaren ondorio nagusia.

BRENT PETROLIO EREMUAN
URRE BELTZA SHELL-EK ERAMAN ETA ZABORRAK IPAR ITSASOARI UTZI

Brent petrolioa esaten zaio erregai horren salerosketetan erabiltzen den petrolio gozo eta arinari, munduan urre beltzaren salerosketan erreferentzia gisa gehien erabiltzen denetako bat da. 50 urte baino ez dira pasatu Ipar Itsasoaren hondoan zulatuta aurkitu zutenetik baina hasia da urritzen. Laster, ordea, *Brent* izena eraman dezake ingurumen arazo konpongaitz batek: iturriok agortutakoan, horiek ustiatzeko eraikitako egitura handiak nork eta zein preziotan desmuntatu.

PELLO ZUBIRIA KAMINO

Urriaren 14an Greenpeaceko ekintzaileek Shell multinazionalak Ipar Itsasoan ur britainiarretan dauzkan bi petrolio plataforma abordatu zituzten. Greenpeacek zabaldutako argazkiek erakusten dituzte bi protestalari itsasoan lagatako egitura herdoildu erraldoi baten gainera igota zintzilikatzen pankarta handi bat dioena: "Shell, garbitu zeure zaborrak!".

Konpainiak berretsi zuen ekintzaileek inbaditu zituztela Brent olio eremuko bi plataforma dagoeneko agortu eta abandonatu, oraindik osorik dagoen *Brent Alpha* plataforma eta gaineko egiturak desmuntatu arren oraindik hormigoizko zangoak zutik dauzkan *Brent Bravo*.

Munduko petrolio ekoizle nagusietakoa den Royal Dutch Shellek eta Exxon Mobilek erdi bana ustiatu duten Brent eremua –Shetland uharteen ekialdean– 40 urteotan petrolioa eta gasa oparitzen aritu da, asko eta ona gainera, zerbaitengatik petrolioaren estandarretako bat *Brent* deitzen da. Eremua osatzen duten lau plataformak, beren 150 iturri eta urpeko plataforma mordoarekin, egunean 500.000 upel ematera iritsi ziren garai oparoenean, 1980ko hamarkadan.

Urpeko hondoak sabelean zeramatzan koipe eta gasak agortu direnean –gaurko teknologiekin errentagarritasunez ustiatzeko modukoak bederen– Ipar Itsasoaren erdian ainguratutako dorre jiganteok eraitsi eta eramateko garaia iritsi da... eta hor hasi dira komeriak.

Shellek lau plataformen hormigoizko oinarri handiak bertan laga nahi ditu, haien barruan utziz betirako 640.000 metro kubiko ur oliotsu, 40.000 metro kubiko hondar koipetsu eta 11.000 tona petrolio. Proposamen hau kontraesanean legoke 1998an Ipar Itsasoko petrolio industria arautzen duen OSPAR batzordearen erabakiekin, zeintzuek debekatzen duten egiturok itsasoan abandonatzea. Shellek Erresuma Batuko Gobernuari eskatu dio arauotatik salbuetsi ditzatela Brenteko plataformak.

Greenpeaceko ordezkarientzako "Shellen planak eskandaluzkoak dira eta ingurumena zaintzeko nazioarteko itunak urratzen dituzte. Klimaren larrialdia, biodibertsitatearen galera eta espezieen extintzioa okerrera ari diren honetan, inoiz baino beharrezkoago dugu itsasoak osasun onean egotea. Milaka tona petrolio abandonatuz gero hormigoizko egitura zaharkituetan, goiz ala berandu itsasoa kutsatzera iritsiko dira".

Britainiarrek 1965ean erakutsi zuten lehenbizikoz Ipar Itsasoaren hondoa zulatuta petrolioa eta gasa ustiatzeko modua bazegoela. 1969an Norvegiaren uretan aurkitu zuten hobi gehiago eta iturriak ugaritzen hasi ziren. 1973ko petrolio krisiak horren prezioa lau halakotzea eragin zuen eta 1979ko krisiak berriro hirukoiztu zuen, errentagarri bilakatuz itsaso oso zakar batean erregaia eskuratzeko prozesu neketsu eta garestia.

Ingalaterra, Eskozia eta Norvegiaz gain herrialde gehiagok zulatu zituzten beren urpeak urre beltzaren xerka: Danimarka, Alemania, Holanda... 2015ean Ipar Itsasoa bihurtu arte munduan itsas plataforma gehien biltzen dituen eremua, 173 orotara. Lehorretik haietara iristeko urruntasuna eta eguraldiaren latza direla medio, eremua osatzen duten 750.000 kilometro koadroak zeharkatzen dituzte eten gabe horietara egokitutako helikopteroek, garraiatuz urtean bi milioi langile lehorretik plataformetara. Eskoziako Aberdeeneko aireportua holako 500.000 bidaiarik erabiltzen dute. Brent izan da eskualde horretan gune emankorrena.

HORMIGOIZKO ZERRALDOAK UHIN ARTEAN

Ekologistek protesta egin eta justu lau egun geroago bildu ziren –ateak itxita– OSPAR itunaren 15 herrialde sinatzaileak, *Brent Bravo, Charlie* eta *Delta* dorreen hormigoizko zutoinekin zer egin erabakitzeko. Energia aferetan berezitutako prentsak zabaldu duenez, eztabaidagai izan zuten Erresuma Batuan asmoa, Shellen proposamena baimentzekoa.

Publikoki aurka azaltzen lehena Alemaniako Gobernua izan da eta ondoren Holanda eta Danimarka; ondoren Europar Batasunak ere bat egin du jarrera horrekin. Funtsean, gobernuok bere egin dituzte aditu askoren artean Shellen proposamenak pizten dituen kezkak.

Alde batetik, plataformen ur-azaleko egiturak desmuntatu ostean hormigoizko 140 metroko sakonerako zutoi-

BRENT DELTA
HARLEPOOL HERRIKO KAIAN SARTZEN, LEHORRERATZE BIDEAN. UR AZAL GAINEKO EGITURA EKARRI DUTE, 140 METROKO HORMIGOIZKO ZANGOAK ITSASOAN AINGURATURIK LAGATA.

nak bere horretan uztea arriskugarria litzateke itsasontzien trafikoarentzako, baina are kezka larriagoa eragiten dute egitura erraldoion barruan dauden produktuek. Zango bakoitzak 300.000 tona inguruko pisua daula, barruan petrolioa metatzeko 64 gela dauzka bakoitza 50 metro baino luzeagoa, eta horien barruan 11.000 tona petrolio geratzen zaizkie.

Shellek dio petrolio hori ondo egonkortuta dagoela hondar eta uretan nahastuta eta metro bete lodiko hormigoizko hormatan gordea, hormigoi hau desegiteko mendeak beharko direla. Allister Thomas kazetariak *Energy Voice*-n laburbildu duenez "*Irtenbide errazik ez Shellen Brent eremuarentzako*" kronikan, beste aukerak neketsu eta oso garestiak omen lirateke, betoizko egitura bati 120ko sakoneran zuloa egin eta hortik petrolioa ateratzea itsasora isuri gabe, esaterako; edo oraindik aski berme tekniko ez daukaten agente biologikoen bidez (onddo, bakterio...), hor utzitako petrolioa birziklatzen joatea.

Aukera bakarra geratuko litzateke, beraz, konpainiaren esanetan: bertan uztea egitura handiok, okerrenera ere egituretatik kutsagaiak isuriko balira horien kalteek ez luketelako hondatuko "dagoeneko plataforma horiek beren jardueran kutsatu dutena baino eremu askoz zabalagoa". Ororen buru –hemen dago argudioaren gakoa– betoizko puska izugarri horiek desmuntatu, lehorrera eraman eta biltegiren batean lagatzearen kosteak eta arriskuak askoz handiagoak liratekeela, horiek bertan uzteak ingurumenari eragingo lizkiokenak baino.

"Egitura horien arazoa da –dio erregaien industrian berezitua dagoen Thomasek– 1970an eraiki zituztenean inork ez zeukala buruan egunen batean desegin egin beharko zirela. Askoz geroago hasi dira petrolioa ustiatzeko baimenak ematerakoan konpainiei eskatzen aurreikustea nola eraitsiko dituzten plataformak".

Energiaren urritasunak Brenten erakutsi die europarrei beste aurpegi hau ere baduela: erregaien kontsumoak klima zorarazten laguntzeaz gain, hain masiboki kontsumitzen diren erregaiok ez direla benetan hain merkeak, ezkutuan daramatzatela hondoko belaunaldiei kutsadura atzeratuetan *oparitutako* koste handiak.

Zenbait adituk Brenten kasutik abiatuta konponbidetzat aipatu du arriskuentzako legez ezartzea petrolio konpainiaren erantzukizun perpetuoa. Baina nork pagatuko ditu etziko kalteak Shellek bihar kiebra jotzen badu? ●

Jean-Paul Bronckart

HIZKUNTZAREN FILOSOFOA

“MUNDUA EZ DA KONPLIKATU, HARI BEGIRA BIZI DEN ZIENTZIAK KONPLIKATU DITU GAUZAK”

Euskal Herrian izan zen urrian Jean-Paul Bronckart psikologo eta hizkuntzalaria, UEUk eta Elebilab ikerketa-taldeak antolaturiko “Euskara oinarri eta eleaniztasuna helburu” ikastaroan. Gure ikasleek darabiltzaten hizkuntza material askoren atzean dagoen espiritua Bronckartena da, eta espiritu horrixe darion su-lamaren bila joan gatzaizkio galdezka.

MIEL A. ELUSTONDO ZALDI ERO

Hizkuntza irakatsi egiten da?

Bai, horixe! Hizkuntzaren giza maila alde batera utzirik, hizkuntza irakatsi egiten da, praktikatu beharra dagoelako. Hizkuntza modu jantzian erabili ahal izateko, nola funtzionatzen duen jakin beharra dago. Eta, horretarako, ikasi beharra dago, dela nor bere gisa saiatuz, dela dakienak irakatsita ikasiz. Batetik, kanpo hizkuntza ikasteaz ari gintezke, non esku hartzen baitute hizkuntzaren akademiak, adituek eta hizkuntzalariek. Bestetik, hizkuntza hitz egiten duen hiztun bakoitza dugu, delako hizkuntza hitz egiten dakiena, eta hitz egiten duena. Hizkuntzaren irakaskuntza, hortakotz, hizkuntzaren akademiaren eta norberaren hizkuntzaren artean zirkulazioa sortzea da. Elkarreragite bat da, nahi baduzu. Hizkuntzaren teoria ez da aski, hiztunaren aldian aldiko praktika du beharrezko. Bestela esanez, guztion baitako ezagutza kolektiboa eta banakoaren ezagutza zirkulazioan jartzea besterik ez da hizkuntzaren irakaskuntza.

Denboran zehar zeharo aldatu dira irakaskuntza modu, irizpide, metodo eta didaktikak. Nola irakatsi beharko litzateke hizkuntza oraingo egunean?

Buruiritzi xamarra nintzateke hizkuntza gaur egun nola irakatsi behar den esaten hasiko banintz! Ez da batere gauza argia. Aditzera eman duzunez, aro ezberdinak igaro ditu hizkuntzaren irakaskuntzak. Urte askoan, gramatika irakastea izan zen hizkuntzaren irakastea. Oso luze jo zuen aro

Jean-Paul Bronckart

LIEGE, BELGIKA, 1946

Hizkuntzaren ikas-irakaskuntza du, oroz gain, ikergai, Genevako Unibertsitateko Psikologia eta Hezkuntza Zientzien fakultatean. 1968an heldu zen hara, Jean Piagetekin lan egitera. 300 lan baino gehiago ditu argitaratuak. Tartean dira, esaterako, haur elebidunen eta eleaniztunen ikasketa prozesuei buruzko ikerketak. Munta handikoak dira, bestalde, elkarreragite sozio-diskurtsiboaren oinarriak lantzeko ikerketak; horietan hizkuntzaren funtzionamendua ulertzeko proposamen teorikoa sakondu du, gauza zinez garrantzizkoa hizkuntzaren irakaskuntzari dagokionez. Era berean, parte-hartze zuzena izan du Euskal Herriko ikasle eta irakasleen ikas-irakaste prozesuetan, eta alde horretatik, uste baino etxe barrurago sartua zaigu Bronckart.

horrek. Gero, bestelako haizeak jo zuen, eta ororen buru, atzerriko hizkuntzen ikas-irakaskuntza tarteko izan zelako. Orduan, praktikari eman zitzaion, eta ematen zaio oraindik, lehentasuna. Hizkuntza praktikatzea zen behin, gauzarik lehena; hau da, hitz egitea, nork bere baitakoak adieraztea, geroko utzirik arauak eta gainerakoak. Orain-go egunean, guk Genevan egiten duguna esango dizut, horixe ezagutzen baitut ongien: bien arteko elkarreragina landu. Alegia, ez bakarrik praktika, ezta bakarrik gramatika ere. Bien arteko lotura sakontzen saiatzen gara gu, eta horretan, gogoeta egiten dugu praktikak gramatikari nola lagundu diezaiokeen antzeman nahirik, eta alderantziz, gramatikak praktikari. Ez dakit erabat errealitatea den ere baina, oraingo egunean, nire ustez, eta hizkuntzaren irakaskuntzari dagokionez, praktikaren zerbitzura jarri behar da gramatika, eta praktika, edozein modutara ere, komunikazioaren zerbitzura jarri behar da. Horixe da lana, eta ez da erraza ere, bi aldeek ere esajeraziora jotzen baitute, hala gramatikak

> ***Hezkuntzan, murgiltzea bera da sistemarik onena eta txarrena, aldi berean"***

nola praktikak: gramatika modu esajeratuan lantzen zuten lehen, eta bat -batekotasuna modu exageratuan eta itsu-itsuan lehenestera jotzen da orain. Nik, neure kautan, balantza orekatzeko saioak egiten ari garela esango nuke.

Nola irakatsi behar dira gutxiengoen hizkuntzak?

Gehiengoen hizkuntzak bezala. Niretzat ez dago gutxiengoen ez gehiengoen hizkuntzarik. Egoera historikoak eta politikoak agintzen dute horretan. Horiek ez dira hizkuntzaren baitako aferak: hizkuntza guztiak maila berean dira. Hargatik defendatzen dut, bada, giza hizkuntza bat besterik ez dagoela. Hizkuntza hori modu ezberdinean gauzatu da batean eta bestean, baina hizkuntza bat besterik ez dago, eta beraz, hizkuntza guztiek dute estatus bera, garrantzi bera.

Zer irizten diozu hango eta hemengo gobernuen jarrerari, "estatu bat, hizkuntza bat" delako esanari. Horretan dira Espainian eta Frantzian, horretan munduko lau ertzetan.

Batzuetan, arrazoi politikoak dira tarteko. Alderdikoiak, esango nuke: "Nire hizkuntza gainerakoak baino hobea da" esatea da hori. Badira arrazoi ekonomikoak ere, jakina. Askoz errazago da, ekonomiari begiraturik, hizkuntza bat irakastea, bi, hiru edo lau irakastea baino. Adibide bat jarriko dizut, ezagutzen ez dena, nonbait, edo isiltzera jotzen dena. Frantziar Estatuak frantsesa du hizkuntza aitortu bakar. "Iraultza ondotik" diote. Baina gezurra da hori. Frantziako Iraultzaren ondoko lehen bi urteetan, Errepublikaren ediktu guztiak Frantziako hizkuntza guzti-guztietan zabaldu zituzten. Horrelaxe erabaki zuten orduko arduradun politikoek. Euskaraz, okzitanieraz, flandrieraz, bretoieraz, altsazieraz... zabaldu zituzten garai hartako legezko ohar guztiak. Bi urte eta gero, horrela jarduterik ez zutela jabetu ziren. Itzultzaileak ordaindu behar zituzten, inprimategia ere bai, hau eta hori eta hura...

Horregatik baztertu zituzten gainerako herrien hizkuntzak?

Bai, bada. Ez zen besterik izan. Batetik bestera, guztiz aldatu zuten beren asmoa, eta hizkuntza bat hautatu zuten, hizkuntza bat guztientzakoa. Oraingo egunean, Frantziako arduradunek zera esaten dute, Iraultzak hizkuntza bat ekarri zuela. Ez da egia. Iraultzak, lehen momentuan, hizkuntza guztiak egoki zirela esan zuen. Baina hizkuntza guztietan jardutea garesti zenez, gauza konplikatua zenez hura dena antolatzen, ideologia lerratze bat gertatu zen. Afera ekonomikoa zena, ideologiaren arabera berrinterpretatu zen, eta "nahikoa da hizkuntza bat eta bakarra" ezarri. Eta uste horixe bera zabaldu zen ingelesen eta, are, estatubatuarren artean, eta gainera, esanez mundua askoz hobea zela horrela.

Noizdanik duzu euskararekin harremana?

Euskararekiko izan nuen lehen ha-

ELEANIZTASUNA, GAZTETXOTAN

"Txikitan, waloniera eta frantsesa hitz egiten nituen. Herrian baziren, bestalde, flandriera hitz egiten zutenak. Gurean, etxeko txikiena nintzenez, apaiz izan behar nuen. Eta apaizgaitegira bidean jarri ninduten 10 urte nituela, eta hantxe egin nituen Bigarren Hezkuntzari zegozkion ikasketak. Apaizgaitegia, hala ere, alemanez hitz egiten zen eskualdean zegoen; pladeusch-a hitz egiten zen bertan. Beraz, waloniera, frantsesa, flandriera eta pladeusch-a nituen ezker-eskuin jokoan. Gaztetxotan jakin nuen eleaniztasuna zer zen. Oraingo egunean, inguru hartan euroeskualdea osatua dute Maastrichtek, Aachenek eta Liegek, eta lau hizkuntza horiek hitz egiten dira bertan".

BRONCKARTEN HIZKUNTZAK

"Oraingo egunean ez dut walonieraz solastatzeko aukerarik. Herrira joaten naizelarik ere, gutxik dakite walonieraz. Frantsesa, berriz, neure hizkuntza dut. Gainera, Suitzan egonik, nire barruan, alemanak gaina hartu dio flandrierari, oso hurrekoak baitira. Eta, azkenean, ingelesez ere ikasi behar izan dut; lanean funtzionatzeko, bistan dena. Arrazoi berarengatik, espainolez eta portugesez irakurtzeko gauza ere banaiz. Ez euskaraz, hala ere, baina ikasi dut hitzen bat edo beste esaten".

rremana Itziar Idiazabal irakaslea izan zen. Irakasle nintzen Genevan 1969an. Igaro dira, beraz, zenbait urte! Eta, oso oker ez banago, 1974an azaldu zen han Itziar. Ordurako, haurraren psikolinguistika nuen ikergai. Haurrak hizkuntza ikasteko duen modua ari nintzen ikertzen, hau da, hizkuntzaz jabetzeko baliatzen dituen estrategiak. Horretaz egin nuen tesia, frantsesa ardatz harturik. Orduan, alemanaren kasua ikertzen hasita nengoela, Itziar azaldu zen, eta euskararen partikulartasun berebizikoaz mintzatu zitzaigun. Eta besteak ez bezalako hizkuntza zenez, galdera egin genion gure buruari: "Hizkuntzaz jabetzeko modua bera ote da hizkuntza honetako haurrengan ere?". Eta horrela ikerketa abiarazi genuen eta tesia ondu zuen, gero, Itziarrek. 1983an aurkeztu zuela esango nuke. Gero, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailean zuzendari-lana egin zuen, eta harremanetan izan ginen. Horrela heldu nintzen Gasteiza Anton Kaifer eta beste zenbaitekin lan egitera, eta geroztik ez diot utzi Euskal Herrira etortzeari. Eta, esate baterako, gogotik lan egin nuen 1987an Donostian egin zen Mundu Biltzarra prestatzen. Harrezkero, beste zenbait kolaboratzaile ere etorri dira nirekin batera zuen herrira, Joaquim Dolz, adibidez, nire laguntzaile izana, eta Euskal Herriaren eta Genevaren arteko interakzioa indartu besterik egin ez duena.

> ***Niretzat ez dago gutxiengoen ez gehiengoen hizkuntzarik. Egoera historikoak eta politikoak agintzen dute horretan"***

GRAMATIKAKERIA HISTORIKOA

"[Piarres] Lafitte abadearen gramatika hartzen badugu, adibidez, berehala ohartuko gara hark latinaren kategoria gramatikalak euskarari egokitzen lan egin zuela. Oraingo egunean hizkuntza modu horretara erakustea izorramendia litzateke. Hizkuntza irakastekotan, haren funtzio nagusiak landu behar dira, baita gramatika ere, baina kasu eman behar da, zeren eta gramatika garrantzizkoa izanik ere, hizkuntzaren irakaskuntzaren historian gramatikakeria nagusitu baita, zoritxarrez".

Azken hitza

2.060 IRAKASLE, ETA ERRAZ

"Lana franko egin dut Genevako eskoletan, ez Suitzakoetan, hala ere, herrialdeko hezkuntza sistema kantonamenduen araberakoa baita. Irakasleen prestakuntzan ere gogotik saiatu naiz, eta esaterako, neuk trebatuak dira denak. Denak! Genevaren abantaila da txikia dela, 2.060 irakasle ari dira hizkuntza irakasten, gehiago ez, eta beraz, erraz da haiekin lan egitea".

Zer diozu murgiltzeari buruz?
Gauzarik onena eta, aldi berean, txarrena da murgiltzea. On izango da arestian esandakoari heltzea, hau da, praktikari eta ezagutzari lotzea. 80ko hamarkadara joan behar dugu murgiltzeaz jarduteko. Garai hartan murgiltzea ezarri zuten han eta hemen, eta ongi da, baina ez da aski. Afera ez baita murgiltzea, nola gauzatzen den baizik, zein baldintzatan gertatzen den, nola kontrolatzen den prozesua, zeren eta alde idealista bat baitago murgiltze nozioaren inguruan. Eman dezagun, Geneva, oraingo egunean. Eleaniztasun ikaragarria dugu Genevan. Hasteko, ni bizi naizen auzoan, portugesa, adibidez, leku guztietan dago, eta eskolan hizkuntza nagusia da! Afrikako hizkuntzak ere nahizu dira, Asiakoak ere bai, eta tartean, hor duzu frantsesa. Murgiltze sinple batek ez du balio zenbait egoeratan. Hasteko, Genevako egoera horretan. Murgiltzea ezarririk, hizkuntzaren jabetze prozesua landu behar da, hura etengabe ikuskatu, eta horretarako, irakasleak trebatu behar dira, bata bestearekin hitz egiten irakatsi behar zaie, gogoetak elkarbanatzen... Afera ez da "murgiltzea bai, murgiltzea ez", hura nola gauzatzen dugun baizik, nolako segimendua egiten diogun. Murgiltzea, arestian esan dizudana: bera da sistemarik onena, eta txarrena, aldi berean.

Eleaniztasuna ekarri diguzu aipura. Lehen, elebitasuna genuen kezka. Orain bi, hiru, lau dira gela batean bizirik diren hizkuntzak. Joko-zelaia aldatu da franko.
Gauza ez da mundua konplikatu dela, munduari begira bizi den zientziak gauzak konplikatu dituela baizik. Kar, kar... Hala ere, mundua errotik aldatu da, inoiz baino anitzagoa da, eta halaxe dira egoerak ere, anitzak, arraroak ere bai, askotan. Eta, beti, hizkuntzaz baliatu behar dugu. Hizkuntzaz. Nirekiko, ez dago dialektorik ere. Hizkuntza da zeinahi giza taldek ekoizten duena. Bedi hori garbi, eta oroz gain, lehen. Besterik da delako hizkuntza horrek, zeinahi dela ere, duen estatus politiko edo juridikoa, baina hizkuntza da. Batean, hizkuntza bat bakarrik dago jokoan. Bestean, bi, hiru edo gehiago. Hizkuntzak dira denak. ●

Gerra Zibilaren lekukotzarik esanguratsuena.



ORAIN EUSKARAZ

Euskadi, auzolana

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

Estatu kolpea Bolivian

ASIER BLAS MENDOZA
EHU-KO IRAKASLEA

Evo Moralesek presidente kargua hartu arte, indigenek eta gutxiengo etnikoek segregazio erregimen bat bizi zuten Bolivian. Ezkerreko gobernu berriak egoera hura deuseztatu zuen. Hegoafrikan ez bezala, Bolivian demokratizazioa arlo ekonomikora ere zabaldu zen, aberatsen eta pobreen –nekazal gune eta hiri guneen– arteko arrakalak gutxituz. Arlo sozioekonomikoari erreparatuta, Evoren Boliviak mikro eta makro adierazle ezin hobeak izan ditu, besteak beste, bere lehengaien gaineko kontrola berreskuratu zuelako.

Halere, Latinoamerikako gainontzeko ezkerreko gobernu suberanistek bezala, Boliviako Gobernuak gerra hibridoaren erdian jardun du: hedabideen jazarpena, Mendebaldeko gobernuen presioak, mobilizazio biolentoak eta estatu kolpe saiakerak. Mendebaldean gutxiagoagatik salbuespen egoerak aldarrikatu, eskubide zibilak eten dira eta militarrak kalera atzeratzen dituzte.

2008an oposizioak hamarnaka indigena eta nekazari hil zituen. Urte hartako estatu kolpe saiakera ez zen aurrera atera, batez ere, Brasil eta Lula da Silvari esker. Ordutik ezkerreko gobernuek sekulako astindua jaso zuten estatu kolpe bigun eta gogorrekin. Halere, egoera aldatzen hasi zen Mexikoko eta Argentinako ezkerraren garaipenarengatik eta Venezuela eta Nikaraguako estatu kolpe saiakerak garaituak izan zirelako.

> Estatu kolpea lehenengo biguna eta gero gogorra izan da, prozesua abiatzeko eta azkartzeko hauteskunde iruzurraren susmoa zabaldu dute

Ezker latinoamerikarraren berrindartzeari aurre egiteko eskuinak eta AEBek garaipen inportante bat behar zuten epe motzean. 2019 urteak une aproposa zirudien, 2016an Evok erreferenduma galdu ostean burutu zuen kudeaketa kaskarrak pitzadura bat sortu zuen Boliviako Gobernuak zituen babesen artean. Bestalde, klase ertain berrien artean, ongizatera azkar ohitutakoak, klase ertain eta klase altu zaharren jarrera klasista eta arrazistak agertzen hasiak ziren. Azkenik, Jair Bolsonaro da Brasilgo agintaria eta honek zeresan handiena dauka erregioan, baita Boliviako politikan eta ekonomian ere.

Estatu kolpea lehenengo biguna eta gero gogorra izan da, prozesua abiatzeko eta azkartzeko hauteskunde iruzurraren susmoa zabaldu dute. Horretarako, hauteskundeen aurretik prestatzen da agertokia jendartean dauden kontraesanak bilatuz eta elikatuz, agenda hori bere egingo duten GKEak bultzatuz, kanpaina mediatikoak antolatuz eta oposizioa eta nazioarteko agenteak koordinatuz. Behin ustezko iruzurraren birusa askatuta, txoko guztietara zabaltzen da, egia ote den axola gabe.

Amerikako Estatuen Erakundea (OEA) auditoretzaren partea da eta zientifikoki lardaskeria handia. Halere, Evok onartu zuen emaitza hauteskunde berriak deituz, ez da gauza hain arraroa lehia estua denean, Austrian gertatu da. Baina alferrik zen, hasieratik asmoa estatu kolpe gogorra ematea zen. Halere, indar ezkertiar suberanisten borroka ez da amaitu. Kolpistek duten arazo nagusia da gutxiengo arrazista eta klasista direla eta behin kolpea emanda une batean edo bestean egoera erregularizatu beharko dute termino liberal-demokratikoetan, gutxi-asko Hondurasen egin zuten bezala. Baina Bolivian indar harremana oso bestelakoa da, indigenak gehiengoa dira, indar suberanistak indartsuagoak dira. Epe motzean estatu kolpea indarrez mantendu daiteke, baina epe ertain-luzean hori egin ahal izateko aukera bakarra diktadura militarra ezartzea da. Ez dirudi bideragarria, horregatik, beraien estrategia etsai politikoak jazartzea eta erreprimitzea da beldurra sortzeko shock terapia baten antzera. Terapia ezin dute luzaroan mantendu. Asteak, hilabeteak edo urteak izan daitezke, baina ezker suberanista Boliviako gobernura bueltatuko da. ●

Askatasuna eta mugak

ANTTON OLARIAGA

ANE ABLANEDO LARRION
IRAKASLEA

Gizakiok libre ote garen, edo hala sentitzen ote garen, erantzuten zailak diren galdera handi eta konplexu horietako bat da, ñabardurarik gabeko jarrera irmorik erraz onartzen ez duten horietakoa. Nik behintzat hala uste dut, iruditzen zaidalako berdin defenda nezakeela baiezkoa nola ezezkoa, bi iritziak direlako nolabait egia, eta biek erakusten dutelako askatasunaz izan ohi dugun pertzepzio unibertsalaren alderdi erreal bat. Nondik begiratzen den. Eta txanponaren zer alderdik hartzen duen une bakoitzean nagusitasuna: gure errealitate beti mugatuegiaren pisuak, ala errealitate hori gainditzeko ala onartzeko egiten dugun hautu librearen kontzientziak.

Egia da bizi garen mundua ez dela askatasunaren oso sustatzailea. Eta nekez sentitu gaitezkeela libre pertsonen beharrak ukatzen dituen gizarte autoritarioan, edo giza eskubide oinarrizkoak urratuak diren errealitate baten baitan, argi dago. Hala ere, ez dut uste gizakion funtsezko askatasuna ukatzen duenik horrek, baldintzarik okerrenetan ere badugulako aske sentitzeko nolabaiteko ahalmena, geure buruaren jabe izaten segitzekoa, barnetik bederen. Egia da nork bere errealitatean eragiteko aukera edukitzea dela askatasuna sentitu ahal izateko baldintza minimoa. Baina hori falta den egoera muturrenekoan ere, errealitate horren kontzientzia garbia edukitzen jakitea bilaka daiteke, bere xumean, askapenerako giltza.

Askatasunak gure bizitzan duen presentzia neurtu ahal izateko, dena den, kontzeptuari ematen diogun adiera berrikusi beharko genuke lehenik, beti nahi duguna egin ahal izatearekin identifikatu ohi dugulako libre izatearen esanahia. Eta interpretazio horren arabera, beti izango baita txikia edozein kalkuluren emaitza. Askatasuna eta mugagabetasunaren artean parekotasuna egitea dago ere gure gizartean nagusi den haurkeriaren iturburuan, kondenatu egiten gaituelako inoiz aske sentitu ezin izatera, beti biktima sentitzera, eta arduragabekeriara. Gure zoritxarrerako, ospe txarra hartu dute gurean muga guziek.

Kontua da existitu egiten direla. Mendira igotzeko nire nahia, akidura xume batek eragozten ahal duelako. Munduko klasiko guzi guziak irakurtzeko nire balizko desioa, bizitzan horretarako aski denbora ez izateak. Edo gustuko gizonarekin ibili nahi izatea, nirekiko bere gogo ezak. Horrela, besterik gabe. Zer eginen diogu. Haragizkoak garelako, eta hilkorrak, eta sozialak. Eta ezugarri horiek modu erabat naturalean inposatzen digutelako izaki mugatuaren halabeharra. Horrek ez du, baina, gure askatasuna eragozten. Ez, behintzat, printzipioz. Gure nahiak moldarazten dizkigu, hori bai. Baina gauzatu ahal izan ditzagun, hain zuzen ere. Asko poztuko nintzateke esaten ari naizena begi-bistakoa dela irudituko balitzaizue, edo artikulu hau soberaxkoa dela pentsatuko bazenute. Zoritxarrez, ordea, gehiegitan sentitzen dut gaia oraindik ebazteko dagoela. Haurrei eskaintzen zaizkien ekosistema ustez aske batzuen nolakotasuna ikusten dudanean, batez ere. Direktibo izango ote garen beldurrez, muga guziak erauzi dizkiogu heziketari. Eta haurrak kondizionatu ditzakegulako-aitzakian, helduaren iritzi eta erreferentzia guziak desagerrarazi. Autoritario ez izateko, autoritate izateari utzi egin diogu helduok eta, zer nahi duzue esatea, haurrak bakarrik uzten ari garela iruditzen zait niri askotan. Maiteok, buelta bat eman behar diogu askatasunaren gaiari. Benetan. ●

Aberatsa maite dut!

IÑAKI MURUA
BERTSOLARIA

Gurean, gurearekin gustura, gauzak osorik adierazteko erdaratara jotzeko premiarik sentitu gabe, hitzen bila eta haiek ekarri ezinda jardun ordez hitz-jario oparoz... Mihia dantzan jarri orduko, etorri marduleko hizketa jaiotzen zaigunean sentitu liteke euskara eroso gurekin. Eta kontua ez da hitz egiten ari denarena soilik, nor dugun entzuten ere erabakigarria da geu gustura eta eroso senti gaitezen, hartzaileak eta emaileak sortzen baitute harremana. Minetik aitortzen dut, behin baino gehiagotan itzali dudala irratia elkarrizketatua euskaraz hain moldakaitz aritzea eraman ezinda; eta esatariaren euskara traketsagatik ere... Hori larriagoa da. Larriegia da!

Denak behar du bere denbora, alferrik galtzen ez bada behintzat! Eta denborapasa bagabiltza? Nafarroan zer suma dabiltzan betiko horiek pailazo euskaldunen zenbat emanaldi kenduko digute?

Horregatik hasi behar dut euskararen aberastasunak azaltzen ea horrek ere laguntzen duen aberatsago sentitzen eta izaten. Esate baterako, lehengo batean entzun nuen: "Atzo izan al zen hori?". Eta erantzuna: "Ez atzo baino bi atzo lehenago". Bada, begira zeinen hurrenkera ederra dugun: gaur, atzo, herenegun eta herenegun antxetik. Alderantzizko bidean joateko berriz: gaur, bihar, etzi eta etzidamu, gutxienez. Eta ñabardura moduan, gauari bagagozkio "bart" esango dugu azken gauari edo hurbilenari buruzko zernahi adierazteko eta horren aurreko gauean esateko "atzo gauean". Joan zen astean entzun nuena ere bada belarriak tente jartzeko modukoa, amak semeari arroz esnea eman zion katilua lepo beteta eta han zihoan semea ontzia dariola zeramala, gainezka alegia, eta hala bota zuen "piska bat gehiegi eman dit". Zenbat eman dizu piska bat ala gehiegi? Zeren horiek biak ongi egon daitezke esaldi berean baina, "asko samar..." edo "gehiegi eman dit" lirateke aproposak. "Ilea luze samar daukazu eta piska bat moztu behar zenuke". Handi samar daukazu atorra eta ez "piska bat handi" baina argi dago handitxo daukazula atorra. Beraz ator hori zuretzat handiegia da!

Gaur goizean perretxikotan izan naiz eta dozenerdi bat onddorekin batera beste nikalo mordoska bat ekarri dut saskian. Adiskide batek galdetu dit "non hartu dituzu perretxiko horiek denak? Inon ez. "Perretxikoak basoan edo mendian bildu egiten dira!". Eta horiekin tortila bat egiteko arrautzak, "oiloek egin egiten edo erruten dituzte", eta ez jarri! ●

"Mutikoa, lasaitu hire pitoa"

EDU ZELAIETA ANTA
IRAKASLEA ETA IDAZLEA

Mutikoa, hiru titikoa, bat kendu eta bi titikoa". Buelta franko emanak dizkiot ahozko tradizioak belarrietara ekarritako erran horri. Familiaren adar euskaldunean –eta horrek, neure kasuan, zuhaitz genealogikoaren kimaketa dakar–, bereziki aitaren eta bi osabaren ahotan aditu izan dut, Bortzirietako euskararen airearekin. Bueltak eta itzuliak, hain zuzen ere, *gizonen arteko* moldeari semantika egoki bat eman nahirik: sekula ez dut ongi jakin, ageriko errimaz haratago, sakoneko mamirik ba ote zetzan.

Enegarren hipotesian nenbilelarik, Lehen Hezkuntzako seigarren mailako mutiko baten kexak jaioa eta hezia naizeneko Gasteizera ekarri nau brastakoan, 2019ko azarora: "Ez dakit zergatik, baina, aurten, gimnastikako ordua dugunean, batzuek tontakeriak egiten dituzte aldagelan". Gauza horien artean, adibidez, zakilen neurria konparatzea omen dago. Falokrazia, zentzurik etimologikoenean. Pitokeriarik ergelena garaile, mutilen artean.

"Mutikoa, lasaitu hire pitoa", atera zait nahi gabe, euskal tradizioa berrituz edo. Ez, jakina, pubertaroaren giro berri horrekin (zorionez) deseroso zegoen mutikoarentzat. Aldageletako ~~buruzagientzat~~ buruzakilentzat baizik. ●

Politikaren feminizazioa eta esentzialismoaren kaiola

MARIA COLERA INTXAUSTI
ITZULTZAILEA

Espainiako Gorteetarako hauteskunde kanpainan parte hartu duen alderdietako batek "politika feminizatzea enpatiara itzultzea da" esan du. Politikan emakume gehiago egotea ona da ohiko giro gaiztoa leuntzeko. Emakumezko hautagaiak emozionatzea eta malko batzuk isurtzea politikaren feminizazioaren ikur da. Emakumeok gaitasun handiagoa omen dugu gatazkak saihesteko.

Halako adierazpenek sentimenduen mundura kondenatzen gaituzte emakumeok, berriro ere. Kontsentsua eta adeitasuna nagusi diren irudizko unibertso femenino bat eraikitzen dute eta, politika gatazka den aldetik, emakumeok boterearen banaketaren borrokatik kanpo uzten gaituzte, intendentzia emozionalaren ardura duten kantineren paperan.

Simone de Beauvoirrek ederki azaldu zuenez, emakume egiten gaituena ez da ustezko esentzia bat, geure existentzia baizik –historikoki eta materialki baldintzatuak eta sozialki eta kulturalki diziplinatuak–. Emakumeok ez daukagu berezko dohain edo bertuterik. Eta indarkeria erabiltzeko joera txikiagoa izatea babesgabetasun ikasiaren (inposatuaren) ondorio da, emakumeon bortizkeriaren patologizazio eta ezkutaketaren emaitza.

> Gatazka eta ika-mika politikoak testosterona kontutzat gaitzesten dituztenek nagusitasun moralaren paparra harrotzen dute, emakumeok bestelako jokamolde zibilizatuagoak dauzkagulakoan

María Jesús Izquierdo soziologo katalanak argi eta garbi azaltzen ditu arrazoibide horrek emakumeontzat dakartzan ondorio arriskutsuak: emakumeok hain onak bagara, bortizkeria arrotza bazaigu, geure ezaugarri nagusia enpatia bada, logikoa da gizarteak geure bizkar uztea zaintza-lana. Nor egokiagorik gu baino zeregin horretaz arduratzeko?

Bestalde, gatazka eta ika-mika politikoak testosterona kontutzat gaitzesten dituztenek nagusitasun moralaren paparra harrotzen dute, emakumeok bestelako jokamolde zibilizatuagoak dauzkagulakoan. Esentzialismo horrek munizio ideologikoa ematen die erabakimena eta boterea erakusten duten emakumezko politikariek etengabe jasaten dituzten irain eta gutxiespen okaztagarriei.

Politika gatazka dela genioen: interes kontrajarrien arteko lehia, nork bere proiektu politikoa gauzatu ahal izateko indar harreman egokia lortzeko borroka. Eta feminismoaren proiektua emakumeok bizi dugun zapalkuntza, bazterketa eta indarkeria ezabatzea bada, geure eskakizunak negoziazio taulan jartzetik etorriko da garaipena, hots politika feminizatu eta *feministatzetik.* Horretarako, ezinbestekoa da emakumeon gehiengoa polisaren bizimodua erabakitzen den lekuetan ordezkatuta egotea eta erabakitzeko ahalmena izatea. Politika eta gatazka gehiago, beraz, eta sentimentalismo eta esentzialismo gutxiago. ●

SANTI COBOS

Nola atera bizirik espetxeko infernutik

Santi Cobos Fernándezek 51 urte ditu. Horietarik 26 zigortuta eman ditu giltzapean, zazpi daramatza baldintzapean "aske", eta 2029 arte ez du behin betiko askatasunik berreskuratuko. FIES galerietan urteak eman zituen, "espetxe barneko espetxea", bere hitzetan. Cobosen bizitza hotzikara eragiten duen kartzela sistema demokratikoaren kronika da. Baina bada borroka kolektibo baten historia ere. Eta garaipen pertsonal baten lekukotasuna: bizitza osoa barrote artean emanagatik aske izateko gaitasuna galdu ez duen pertsona da Cobos.

ZIGOR OLEAGA DOS POR DOS

Leonen jaio zen Santi Cobos, ingurune behartsuan. Bera jaio aurretik gurasoak gurdiarekin ibiltzen ziren azokaz azoka: "Jendeak baztertu egiten zituen eta Guardia Zibilak jazarri, mezatara joaten ez zirelako edo bizileku finkorik ez zutelako". Jaio zenerako autotxokeen negozioa zuen familiak. Udaran dirua egiten zuten herriz herri, eta negua Leon hirian ematen zuten.

Giltzapeko lehen esperientzia hamahiru urterekin izan zuen. Erreformatorioan bi urte eman zituen: "Ihes egiten nuen ahal bestetan. Adingabeentzako epaitegiaren eskuetan nengoen, eta hezitzaileek gutaz abusatzeko eskuak libre zituzten". Kalekumea izaki, erreformatoriotik irtetean gurasoengandik aparte hasi zen bizitzen, bere kasa. 80ko hamarkada zen: "Bizimodua bilatzen nuen, beste askok bezala. Behar handia zegoen garai hartan". Hamasei urterekin espetxeratu zuten lehenbizikoz hamabost egunez, eta ondoren urtebete eman zuen preso, lapurreta txikiengatik beti ere. 1989an, hogei urterekin, sei urteko kondena betetzen hasi zen Leongo espetxean, "familia barneko liskar baten ondorioz".

ERREBELDIA ETA ASKATASUN SENA

Bidegabekerien aurrean matxinatzen den horietakoa zen Cobos, jarrera politizatu kontziente baten ondorioz baino, sen hutsez. Izan espetxearen "abusu etengabeen" aurka, izan "patio kontuengatik": "Gaztetxo heldu berri bati zapatilak lapurtu behar zizkiotela ikusi eta... nik ez nuen balio horrelakoak ezer egin gabe pasatzen uzteko". Askatasun sena ez zuen txikiagoa: "Murruek ito egiten ninduten, hasieratik pentsatu nuen ihesean". Sei urterako sartu zen espetxean Cobos, baina barruan ia beste 70 urteko zigorrak pilatu zituen.

90eko hamarkadaren hasieran oinarrizko eskubideen inguruko borrokak, mutinak eta ihesaldiak ohikoagoak ziren espetxeetan. Testuingurua ez zen batere adeitsua, borroka ere ez: "Mundu oso bortitza zen, odoltsua. Aldarrikapen bat egiteko hamabost lagunek batera besoetan ebakiak egiten genituen, edo misilak [puntadun objektuak] sabelean sartu". Azken hori egin zuen behin Cobosek, ospitalera atera eta handik eskapada egitea helburu: "Lortu nuen korrika ihes egitea, baina isuritako odolaren ondorioz hain nengoen ahul konortea galdu nuela ospitaletik irten orduko".

Ihes egiten dozena bat alditan saiatu dela dio Cobosek, inongo harrokeriarik gabe. "Gehitu horiei prestaketen erdian etendako saiakerak". Valladolid eta Za-

ASIER OTXOAK UTZIA

SALAMANCAKO TOPAS ESPETXEA. Preso sozial eta politikoak modulu arteko pilota partida jokatu ostean (2007ko iraila). Ezkerretik eskuinera: Victor Peco, Asier Otxoa, Jon Crespo, J.R. Mtz. de Lafuente (Txoritxu) eta Santi Cobos.

morako espetxeetako mutinetan parte hartu zuen. Bietan funtzionarioak bahitu zituzten presoek. Mutinak ihes saiakerak ziren gehienetan, helburua ez zutenean lortzen bihurtzen ziren mutin. Zenbat eta saiakera gehiago egin orduan eta zailagoa zen ihes egitea. "Hasieran ihesaldi garbiak egiten saiatzen nintzen, murrua saltatu eta kito. Giltzarrapo gehiago jarri ahala, gehiago arriskatu beharra nuen, desesperazio handiagoz". Testuinguru horretan kokatzen du Cobosek 1995ean gertatutakoa. Epaile bati mehatxuzko gutunak idatzi zizkioten berak eta Juan Redondo presoak, epaituak izateko epaitegira atera zitzaten gero handik ihes egiteko. Lortu zuten epaitegira heltzea, baina ez ihes egitea: polizia bat hil zuten presoek, Cobosek tiroa jaso zuen buruan eta Redondok birika bat galdu zuen beste tiro baten ondorioz. Ordurako, hiru urte zeramatzan Cobosek infernu hartan bizitzen.

FIES: INFERNU INSTITUZIONALIZATUA

Jarraipen Bereziko Barne Fitxategiak [FIES] 1991n sortu zituen Espainiako Gobernuak, Felipe Gonzalez buru zela. Bost FIES mota zeuden, egotzitako delitu motaren arabera. Cobos Zamorako mutinaren ondoren sartu zuten FIES 1ean: "Minbizitzat gintuzten 50-60 preso sozial aukeratu zituzten: ihesean saiatutako pertsonak, matxinoak, mutinen sustatzaileak, idatziz salaketa asko egiten zituztenak, nolabaiteko lidergo gaitasuna zutenak...".

Espetxe barneko espetxe bezala definitu izan da askotan FIES erregimena. Zenbait espetxe hautatutan ziega gutxi batzuetako aparteko galeriak eraiki zituzten, espetxe araudiak berak ere onartzen ez zituen bizi-baldintzak ezarriz: "Ziega indibidualak, ate bikoitzarekin eta dena mekanizatua –orduan berritasuna zen–. Jantzi bakarra langile buzoa, inongo objektu pertsonalik ez, zigarroen tamainako zulotxoak zituen txapa bat leihotzat. Erabateko isolamendua eta ordubeteko patioa, ateratzen bazintuzten. Patiora bakarrik irteten ginen, eskuak eskuburdinekin lotuta eta funtzionarioen etengabeko mehatxupean. Bisean bisekorik ez. Posta kontrolatua, asteko gutun bakarra orri txiki bakarrean eta letra larriz idatzita, idazten zizkidaten gehienak ez zitzaizkidan heldu ere egiten".

TORTURAK ETA SUIZIDIOAK "MAFIAREN" ESKUETAN

FIES araudia gordina bazen, errealitatea are gordinagoa. Funtzionarioen umiliazioak eta tratu txarrak gogoratzean begirada gogortzen zaio Cobosi. Eguneroko ogia ziren, bere hitzetan: "Lehen unetik 'akabatuko zaitugu, putakumea', geure buruak urkatzera animatzen gintuzten... Koltxoiarena: gauez etorri eta koltxoia kentzen zizuten, ordu betera berriz ere esnatu eta bueltatu, beste ordubete eta kendu, hurrengoan berriz bueltatzera etorri eta 'ez dut koltxoi madarikatua nahi, zuentzat' esan, eta orduan jipoia jaso. Atea irekitzen zen bakoitzean jipoiaren beldur, bostetik hirutan edo lautan horrela baitzen. Psikosia zen gauzen egoera naturala".

"Suizidioa Elixir erakargarria zen ihesbide bezala, guztiek izan genuen buruan uneren batean edo bestean", aitortzen du Cobosek. Zenbait presok egin zuten bere buruaz beste. Kasuren batean, suizidioaren eta hilketaren arteko muga lanbrotu egiten da: "Moi [Moisés Caamánez] kartzeleroek atea ireki ziotenean urkatu egin zen haien aurrean. Eta jende horrek zer egin zuen? Korrika irten ziren, beren hitzetan izara mozteko laban baten bila, eta 15 minutura bueltatu ziren. Noski, Moi hilda zegoen ordurako". Ernesto Barrot lagun mina zuen Cobosek: "Leihoko barroteetatik urkatu zen maindireak erabilita, Valladoliden. Eskegirik zegoen baina maindireekin ezin zen ikusi hankak airean zituela. Funtzionarioak bizpahiru erratz makil lotu eta atearen bestaldetik gorputza bultzatzen aritu ziren. Izan ere, bazekiten zer egiten ziguten, eta aldi berean beldur handia ziguten horregatik. Azkenerako ezkutu eta borrekin sartu ziren eroen pare oihuka. Tarte bat eman zuten gorpua jipoitzen, harik eta hilik zegoela ohartu ziren arte". Suizidio horien bitartean ondoko ziegetako batean zegoen bera, metro batzuetara, gertatzen ari zena entzuten eta irudikatzen. Isiltasuna egiten da une batez. "Nik garai hura bahiketa bezala definitzen dut. Ez zinen preso bat sentitzen, mafia batek bahitua baizik", borobiltzen du Cobosek.

FIESetan zeuden beste preso batzuek burua galdu zuten. Batzuek nahita, dio Cobosek: "Infernuari ihes egiteko beste modu bat da". Cobos salbuespena da: bizirik irten zen eta kalean bizitza berria eraikitzeko gai izan zen.

GORROTOA HELDULEKU

Horri guztiari aurre nola egin dakiokeen galdetu diogu Cobosi. Ez darabil zurikeriarik: "Animalia bihurtu behar zinen bizirauteko, zure gizatasunari uko egin. Gorrotoa pultsio huts bilakatu zitzaidan. Gorrotoa funtzionarioei, espetxeari, zuzendaritzari, arduratu ere egiten ez zen zaintza epaileari, kriminalizatzen gintuzten komunikabideei, jendarte osoari. Ez ziren egunak izan, urteak baizik. Gertatzen ari den bitartean, ez zara kontziente. Errespetua galtzen diozu guztiari dena lapurtu dizutelako, zure freskotasuna, zure gizatasuna". Hamazazpi urte eman zituen Cobosek FIESean sailkatuta, ez denak hain baldintza gordi-

Salamancako Topas espetxeko pilotalekuan, 2003an.

SANTI COBOSEN FAMILIAK UTZIAK

Arabako Langraitz espetxean, 2010. urte inguruan, berak egindako eskulana eskutan duela.

netan. Aldi berean sentimendu eta printzipio jakin batzuk mantendu zituen: "Espetxean borroka garrantzitsuena horiek ez galtzea da, beraiek nahi duten hori ez bilakatzea, espetxe produktu bat ez bihurtzea".

Erabateko despertsonalizazioa helburu, ispilurik ere ez zuten FIES galerietako presoek. Cobosek gogoan iltzatua du bizpahiru urteren ondoren bere burua berriz ere ispilu aurrean ikusi zuen aldia: "Ni neu ez nintzen pertsona bat ikusi nuen. Haurtzaroko irudiak ekarri zizkidan, familiarenak... Negarrez hasi nintzen, ume bat bezala. Oso une tristea izan zen". Oso antzeko pasadizoa utzi zuen idatzita Patxi Zamoro FIES preso historikoak A ambos lados del muro liburu gogoangarrian.

INFERNUTIK PURGATORIORA, BORROKATUZ

Urte batzuk igarota hasi ziren FIES galerietako baldintzak hobera egiten. Oso pixkanaka, eta borrokaren ondorioz. Lehen urteetan, borroka espetxe barrukoa eta ia indibiduala izan zela dio Cobosek. Batetik, presoak bakartuta zeudelako. Bestetik, PSOE gobernuan egonik horrelakorik sinestea ezinezkoa egiten zitzaiolako askori: "Salatzen genuenarekiko ukazio handia zegoen". Denborarekin, ordea, borroka murruetatik kanpora irten zen: "Elkarte batzuek salaketa eta mobilizazio kanpainak hasi zituzten, atera zen presoren bat gertatzen ari zena kontatzen hasi zen, euskal preso politikoek salaketa idazkiekin lagundu ziguten... azkenean, baldintza batzuk leuntzen joan behar izan zuten".

Funtzionarioen sindikatuek leuntze horren aurka egin zuten hasieran. Ondoren hurbiltze prozesu bat hasi zuten zenbait espetxezainek, presoetako batzuekin pertsonalki hitz eginez. "Zer aldarte genuen ikusi nahi zuten, ia burutik nola geunden... Min handia egin ziguten, gorroto asko genuen eta bazekiten desaktibatzea zaila zela". Espetxezain gorrotatuenetako batzuk ordezkatu zituzten, eta preso batzuk FIES galerietatik lehen graduko modulu arruntetara atera zituzten. "Urte batzuk horrela eman ostean, gutako batzuei planteatu ziguten espetxe erregimen arrunterako trantsizioa egiteko aukera".

> **"Atea irekitzen zen bakokitzean jipoiaren beldur, bostetik hirutan edo lautan horrela baitzen. Psikosia zen gauzen egoera naturala"**
>
> Santi Cobos

Bigarren gradura pasa zen Cobos 2007an. Sei urterako sartu zen gazteak ia 20 urte zeramatzan preso ordurako, baina espetxealdian gehitutako kondenekin ia 70 urteko zigorra zuen gainean. "Bizi guztiko kartzela zigor ezkutua nuen". Eta bera ez zegoen hori onartzeko prest. Egoera nolabait bideratzen ez bazioten, gose grebak eta bestelako protestak abiatuko zituela jakinarazi zion espetxeari. Garai berean, abokatuek esan zioten egoera aldatzeko aukerak bazirela. Botere judizialeko eta espetxe sistemaren zuzendaritzetako pertsona batzuek ez zutela begi onez ikusten haiekin egiten ari zena, eta Cobosek egoki erantzuten bazuen urratsak eman zitezkeela, oso-oso pixkanaka. Espetxeko hezitzaileak ere animatu eta asko lagundu zion. "Finean, burua jan zidaten eta murruaz ahazten joan nintzen", dio barre artean.

FUNTZIONARIOEN HERRA ASEEZINA

Irteteko lehen baimena lortu zuen Cobosek azkenik, Salamancako Topas espetxean. 2008. urtea zen. Eguneko baimena, lotara espetxera bueltatu beharrarekin. "Arraroa izan zen: Salamancako Plaza Nagusian nengoen hezitzailearekin eta moja batekin, korrikaldi bat egitea nahikoa nuen... Denetatik pasa zitzaidan burutik", gogoratzen du irribarre bihurriz. Tentazioari eutsi zion, ez zuela ihes egingo hitza jende askori emana ziolako eta batzuek bera laguntzeko arriskuak hartu zituztelako. "Inflexio puntua izan zen".

Funtzionario batzuk ez zeuden prest Cobosi aukera ñimiñoena ere emateko, ordea. Salamanca eta inguruko herriak bere irteerarekin "arriskuan" egon zirela salatu zuten prentsan. Alarma piztu zen, eta afera gobernadore zibilarengana eta espetxeko zuzendariarengana heldu zen. "Zuzendaria etorri zitzaidan beste pertsona batzuekin. 'Hara, Santi,

saiatu gara, baina ez dut arrisku gehiagorik hartuko' esan zidan". Geldialdia izan zuen prozesuak.

Urtebetera, Cobosen egoera are gehiago larriagotu zen. Preso bat hil zuten espetxeko patioan, eta beste preso batek Cobos salatu zuen. Bere aurkako prozedura judiziala abian zela, Cobosen abokatuak salataria kontraesanetan harrapatu zuen galdeketa batean, eta orduan aitortu zuen salatariak funtzionarioek agindu ziotela Cobos egiteko erantzule. "Horren ostean Langraitz espetxera lekualdatzea eskatu nuen, Topasen zer eginik ez nuela ikusirik".

Onartu zioten aldaketa, eta Gasteizko elkarte zenbaiten laguntzarekin irteerak lortu zituen berriz ere. Hilabete batzuk igarota, ordea, Leonera lekualdatuko zutela jakinarazi zioten, eta horrek prozesua etetea ekarriko luke. Lana lortu zuen orduan Gasteizko liburu denda batean, lekualdaketa geldituz. Ez Langraitzeko funtzionario batzuen azken saiakera gabe: "Liburu dendako arduradunarekin hitz egin zuten beldurra sartzeko, ea ba ote zekien nor kontratatu zuen, zeinen arriskutsua nintzen...". Ez zuten emakumea kikiltzea lortu.

"DESARMATU" KALEAN BIZITZEKO

2012an baldintzapeko askatasuna lortu zuen Cobosek azkenik. Irteteak beldurra eman zion galdetu diogu: "Noski baietz". Espetxea kode propioak dituen mundua da eta presoek horretara moldatzen dute izaera. Irtetean dena kolokan jartzen da. "Kartzelak zure okerrena ateratzen du odolez eta gorrotoz. Armatuta ateratzen zara kalera, barruan bizirauteko eta defenditzeko garatu dituzun armekin. Armategi bat, kalean balio ez duena baina ariman sartuta daukazuna. Kontua da ia behin kalean desarmatzeko gai zaren".

Kostata eta pixkanaka desarmatu zen Santi Cobos. Zenbait pertsonaren laguntza eta aitortza jaso zuen, kalean sufritzen zuen jende gehiago ere bazela ikusi zuen, bere familiaren eta presoen senideen minekin enpatizatu zuen... "Horrek guztiak lagundu zidan. Baina salbuespena da". Barre artean, Euskal Herrian dagoen poliziarenganako gorrotoa eta preso egon direnekiko estigmatizazio txikiagoa ere eskertu zituela dio. "Guardia Zibilarekiko edo tratu txarrekiko ikuspegi bera duen jendearekin topo egitea, begiradaz 'ez duzu azaldu beharrik sinesten zaitut' adieraztea... chapeau".

DAMOCLESEN EZPATA LEPOAN... BAINA LIBRE

Baldintzapeko askatasunean zazpi urte daramatza Cobosek, eta beste hamar ditu aurretik. Asko bidaiatu du Espainiako Estatuan zehar lotarako prestatua duen furgonetan. Leonera maiz hurbiltzen da, familiarenera, baina sozialki bere erreferentziazko tokia Gasteiz dela dio: "Jendea ezagutzen dudan tokia da, maitasuna diot Gasteizi". Libre sentitzen den galdetzean, baldintzapeko askatasunean edozein tontakeriak arazoa ekar diezazukela nabarmendu du. "Damoklesen ezpata hor dago beti, batzuetan preso sentitzen naiz". Zaballan urteko bosgarren presoa agertu da hilik, eta horrelakoak entzutean gorputz erdia espetxean duela iruditzen zaio.

Hala eta guztiz ere, poza antzematen zaio. "Atzera begiratu eta irribarrea ateratzen zait. Nire burua espazio irekietan ikustea, desioak gauzatu ahal izatea: egingo dut edo ez baina jakitea nahi izanez gero ate hori zeharkatu edo garagardo bat har dezakedala, hori da askatasuna. Baldintzapen guztien gainetik, libre sentitzen naiz".

Preso sozial eta politikoen arteko mundu txikia

Ezkerretik eskuinera: Asier Otxoa, Santi Cobos eta Gorka Lazkano.

Asier Otxoa de Retana Simonek eta Gorka Lazkano Muruak sei eta bost urte egin dituzte preso hurrenez hurren. Otxoak Jarrai-Haika-Segi sumarioan auzipetuta, Lazkano ETAri laguntza eman izana leporatuta. Salamancako Topas espetxean ezagutu zuten elkar 2000ko hamarkadaren bigarren erdialdean. Urte batzuez, haiek eta beste preso batzuek elkarbizitza talde estua sortu zuten, espetxeari gozamenerako eta kidetasunerako espazio bat irabaziz.

Jendarteak aurre egin nahi ez dizkien gauza horik azpian ezkutatzeko dituen alfonbra" da espetxea Lazkanoren ustez, eta "pertsonak xehatzeko makina". "Kartzelak presoa infantilizatzen du, autokudeaketa pertsonalerako gaitasuna lapurtuz. Gero bat-batean kaleratu egiten zaitu, "konpon zaitez zu zeu esanez, eta ezin duzu", dio Otxoak. "Eta izaki apatikoak sortzen ditu, dena duzulako egina edo inposatua", osatzen du Cobosek. Hirurek ondo ezagutzen dute espetxea.

Salamancako Topas espetxean egin zenuten topo. Nola joan zineten harremana estutzen?

A. Otxoa: Hirugarren moduluan egin genuen topo, Gorkaz gain Urko eta Oti 'kideak' zeuden. Santi ia kide modura aurkeztu zidaten. Ez da normala espetxean hain konfiantzazko pertsonak aurkitzea preso politikoen kolektibotik kanpo.

S. Cobos: Aurretik preso politiko askorekin harremana izana nintzen. Euskara apur bat ikasi nuen eta praktikan jartzen saiatzen nintzen. Gero hobeto edo okerrago konpon zaitezke, kalean bezala, eta gure kasuan kupidoren gezi-kolpea izan zen [barre orokortuak]. Asier heldu zenerako 'txiringitoa' martxan genuen jada.

Zer zen 'txiringito' hura?

S. Cobos: Koadrila bat ginen, harremanetara eta elkarbizitzara dedikatuak. Gibel asmorik gabeko adiskidetasuna sortu genuen, espetxean ez da batere erraza, behar handia baitago. Espetxealdiaren une lasai batean izan zen, isolamendurik gabe, jipoirik gabe...

A. Otxoa: Hiru bat urtetan zazpi-zortzi izan ginen, hiruzpalau sozial eta hiruzpalau politiko, sartu eta irteten zen jendearekin. Hori zen borroka, gozamenerako espazio bat sortzea etsaitasunezko giro haren erdian. Areto bat genuen, gure espazioa zen nolabait. Orduko bizipenak partekatu eta gero, berdin dio urteak ematea elkar ikusi gabe. Lotura berezia dago.

G. Lazkano: Gure mundu txikia sortu genuen. Espetxeak ez dizu ezer emango, biziraute zure bizitza eraiki behar duzu ahal duzun moduan, eta bide horretan lagunduko zaituen hurbileko jendea aurkitzea altxorra da. Aparte Santi ezagutzeak ni aberastu egin nau, espetxe barruko beste borroka bat ezagutu dut.

urbil

GABONETAKO DOAKO JARDUERAK

Abenduak 6etik
TAILERRAK
Kids Zone haurtzaindegia.

Abenduak 28
FORTNITE TXAPELKETA
Hype Station® gunea.

Abenduak 20, 21, 23, 24
OLENTZEROREN BISITA

Abenduaren 5etik
LERA-PISTA

Abenduaren 12tik
ERAKUSKETA
#UrbilKonpromisoa.

Instagram-ean: @urbil_cc
ZOZKETA
Zinemara urte batez doan.

ETA GAINERA...
Gabon hauetan, gure Urbilbox aisialdi planez goza ezazu deskontuarekin, zuretzako edo oparitzeko.

DESKONTUAREKIN PLANAK

UrbilBox
SaltoPlan OcioPlan
SaltoPlan TXiKi OcioPlan TXiKi
SuperPlan

Informazio guztia: urbil.es

Funtzionarioek zuen arteko harremana txarto hartu zuten?
S. Cobos: Ihesaldiak egin dituzten presoak, mutinak antolatu dituztenak, ETAkideak, denak elkarrekin geunden, pentsa.
A. Otxoa: Eta gainera egun guztia barrez. Nahiko ondo pasa genuen urte haietan, hala eta guztiz ere. Une gogorrak ere izan genituen, baina zentzu horretan pribilegiatua sentitzen naiz. Kartzelero txakurrenei batez ere, haserre handia sortzen zien.

Pepe Villegas COPELeko preso historikoak kontatzen zuen funtzionarioek mehatxu egin ziotela: "Euskaldunekin erlazionatzen jarraituz gero ordainduko duzu". Eta ordaindu zuela zioen. Santi, zu kaltetu egin zaituzte harreman mota hauengatik?
S. Cobos: Nire kasuan ezberdina zen, funtzionarioen irudiko ni euskaldunak baino influentzia are okerragoa nintzelako [barre orokortuak]. Baina euskal preso politikoen eta beste presoen artean etsaitasuna sortzeko ahaleginak askotan ikusi ditut. Gogoan dut, esaterako, Villabonako espetxean [Asturies] 11Mko atentatuen eguna. Funtzionarioek preso sozialei burua jan eta ia antolatu ere egin zituzten euskaldunen aurka oldar zitezen. 'Pintxorik' ez erabiltzeko esan zieten soilik, bestela kontrola galtzeko arriskua baitago.
A. Otxoa: Sozialak moduluz aldatu izan dituzte gurekin harremana izateagatik, horrelakoak askotan.

Adiskidetasuna mantendu duzue espetxetik kanpo ere.
A. Otxoa: Gorkak ezin gintuen bisitatu espetxetik irten eta gero. Ni bi urte eta erdiren ondoren irten nintzen eta Santik Topasen jarraitu zuen.
S. Cobos: Garai hartan gutun bidez mantendu genuen harremana, eta senideen bitartez mezuak helaraziz, elkarrengatik galdetuz-eta. Gero Langraitzerako lekualdaketa izan zen. Irteteko izan nuen lehen baimenaren egunean bila etorri zitzaizkidan espetxera nire lagun batekin batera. Hirugarren gradutik aurrera maiztasunez ikusi dugu elkar. Orientabide gisa balio izan zidaten irtetean. Gorkak esan zidan: "Hemen nire etxea, nahi duzunerako". Asierrek berdin.

Topasen eraiki zenutena ez da oso ohikoa. Nolakoak izaten dira preso "sozial" eta "politikoen" arteko harremanak?
A. Otxoa: Oso zaila da Santi eta Topaseko beste batzuk bezain sendo dauden presoak aurkitzea espetxean, eta horrek harremana erabat baldintzatzen du.
G. Lazkano: Egoera familiar eta pertsonal izugarriak daude. Gainera, espetxe barruan oso 'gizon' izan behar duzu, gogortasuna antzeztu, ez dira ahultasunak kontatzen. Ni entzutekoa naiz, eta asko etortzen zitzaizkidan kontatzera, barrenak hustutzeko eta entzunak izateko beharra zuten. Benetako dramak.
S. Cobos: Badago oinarri bat: azken batean kaka berean zaudela, espetxean. Horrek egiten du maila batean behintzat batzea. Nik oro har euskal presoak sozialekin ondo portatzen ikusi ditut, izan zigarro bat emateko izan idatzi batekin laguntzeko. Eta sozialen aldetik errespetua, gertutasun politikoetatik harago. ●

Kooperazioa da punta-puntako neurokirurgia egitearen parekoa”

BEÑAT ARZADUN OLAIZOLA

Beñat Arzadun Olaizola (Errenteria, 1973) ingeniaria da eta hamazazpi urte daramatza Mozambike iparraldean kooperante, Arrasateko Mundukide Fundazioan. Fundazioaren laguntza 15.000 nekazarirengana iristen da eta Olaizolak, zehazki, ekoizpena hobetzeko teknikak irakasten dizkie. Aurten, inoizko irabazirik handienak lortu dituzte baserritarrek.

AMAIA ZABALA TOLOSA

Kooperante izatea erabaki eta Mozambikera ailegatu zinelarik, zer egin zitzaizun deigarriena?

Lehen aldiz Marrupara (Niassa probintzian) iritsi nintzenean egoera gatazkatsua aurkitu nuen. Begiak eta belarriak ireki, galdetu eta ulertzen saiatu, hori zen egin behar nuena. Horrela pasa nuen lehenengo urte osoa, haiengandik ikasten eta haiek ulertzen, eta uste dut horri esker atera direla ondorengo proiektuak.

Zein proiektu?

Mozambikera etorri ginenean, eskualdea garatzeko programa zabala genuen buruan, arlo produktiboa eta ekonomikoa, osasuna, hezkuntza, azpiegiturak... landuko zituena. Bizpahiru urteren buruan, ordea, konturatu ginen eremu produktibo eta ekonomikoan zentratzea hobea zela, beste arlotan txikia zela gure balio erantsia. Nekazaritza pixkanaka indarra hartzen hasi zen eta enpresa txikiak sortzen lan handia egin genuen hasieran, baina ahaleginak ez zuen emaitza handirik eman, eta behin nekazaritzan buru-belarri jarri ginenean, orduan hasi ginen emaitza onak lortzen.

Batez ere bi gauza egin ditugu emaitza oso onak eman dituztenak. Bata, hasierako garaietan, errepideak egitea, eta bestea, nekazaritza teknikak hobetzea. Esaterako, duela hamabost urte Marrupako hamar baserritar oparoenek urte osorako 200 bat euroko uzta zuten eta orain, milaka dira Marrupan uzta hobea lortzen duten baserritarrak. Aurten gainera errekorra egin dugu: hainbat teknika eta aholkuri esker hamar milioi eurotik gorako diru-sarrera izan dute baserritarrek. Hori Mozambiken da urte osorako 15.000-20.000 lanpostu sortzearen parekoa. Eta oraindik badago irabaziak handitzeko tartea.

Une honetan zein da Mozambikerako plan estrategikoa?

Iparra argi dugu, hemengo baserritarren diru-sarrerak handitzea lortu behar dugu. Bestalde, gure barne funtzionamendua berrantolatzen ari gara, fundazioko dirua ahalik eta jende kopuru handienera heldu dadin. Gakoa da gero eta mozambiketar gehiago dugula fundazioan lanean; jende gazteari fundazioko martxa erakusten diogu, lanerako trebatzen ditugu eta lantaldea zabaltzen goaz, ahalik eta nekazari gehienengana iristeko.

10.000-15.000 baserritarrekin gabiltza eta dagoeneko teknikak ikasiak dituzten 200 edo 300 bat baserritar irakasle mugitzen ditugu urtean, eremu batetik bestera eta bost hilabetez.

Kanpoko kooperanteak hiru gara eta idazkari eta ikuskatzaileen artean 35 langile mozambiketar ditugu.

Nola definituko zenituzke bertakoen bizi baldintzak?

Zeharo desatseginak, inork berarentzat nahiko ez lituzkeenak: gutxi eta gaizki janez, lo lurrean eginez eta hainbat garaitan hotza pasatuz, beti hauts artean, gaixotasunak tarteko, heriotza tasa altuekin...

Jendeak hobeto bizi nahi du eta une honetan hobeto bizitzeko behar duten gauza garrantzitsuenetakoa diru pixka bat edukitzea da, etxea hobetzeko, koltxoia eta mantak erosteko, edo irrati bat, eskola ordaintzeko, medikutarako... eta hori lortu ahal izateko prest daude gauza berriak ikasteko.

Mundukidek Mozambiken duen programa honek lotura du kooperatibekin. Kooperatiben filosofia nagusitzen al da zuen egitekoan ere bai?

Mondragon Kooperatibaren sortzaile Jose Maria Arizmendiarretak zioen moduan, politikariek eta soldaduek mundua gobernatu nahi dute, filosofo eta zientzialariek mundua ulertu nahi dute eta langileek mundua eraiki egiten dute. Garapena ere eraiki egiten da eta gure egitekoan ez dago limosnarik, zabaltzen diegun mezua hori da, inork ez diela etorkizuna oparituko, eurak direla euren bizitzaren jabe eta aurrera ateratzeko lana egin beharko dutela. Ideia hori Mundukide nagusiki finantziatzen duten Arrasateko eta inguruko herrietako kooperatibetatik dator.

Kooperazioarekiko iritzi kritikoa duzu.

Kooperazioa ez da erraza eta askotan arrosa kolorekoa bailitzan saltzen dute. Kooperazioa da punta-puntako neurokirurgia egitearen parekoa. Mozambike dagoen bezala dago gauzak aldatzea zaila delako, bestela eurek ere aldatuko lituzkete euren kabuz. Kooperazioan erabaki zailak hartu behar dira, sakrifizio handiak egin, zerbait funtzionatzen hasteko. Ez onartzeak dakar sarri asmo onak gehiago izatea ekintza onak baino.

Zuk esana da Europak hipermetropia duela eta Mozambikek berriz, miopia.

Hona datorren europarrak badaki herrialde garatu batek nola funtzionatzen

duen edo nola bizi den, baina ez daki herrialde azpigaratu batek zein bide egin behar duen garapenera iristeko. Mozambiketarrak berriz, badaki pobrezian bizitzea zer den, baina ez daki zein bide egin behar den pobreziatik ateratzeko. Mozambiketarrei ideiak eskatzen zaizkienean ezagutzen dutenaz hitz egiten dute, errota bat gehiago, kamioi bat gehiago... Gertuko gauzak. Aldiz, Mozambikera datorren europarra txotxolokeriekin dator, komunitate honetarako aurreratuegiak diren gauzekin edo testuingurutik kanpo dauden gauzekin. Bi mutur horiek uztartzea izaten da zailtasunetako bat: hemengoak urrutiago ikusten ikasi dezala eta kanpotik datorrenak bere esperientzia hemengo errealitatera egokitzen jakin dezala.

Garapenean, zergatik geratu dira Afrikako herrialdeak atzerago?

Historiagatik. Europa erdia erromatarrek kolonizatu zuten eta horregatik ez zen azpigaratua gelditu. Erromatarrek aurrerapenak ekarri zituzten Europako beste herrialdeetara, nahiz eta garapen horrek esklabotza, zigorra eta krudelkeria ere ekarri zituen. Euroasia osoan, duela 10.000 urtetik duela 2.000ra garapen prozesu azkarra eman zen garaian, Afrika isolatuta geratu zen eta historiak erakutsi du ideia berriak sortzeko jende mugimendu handia behar dela, batzuk besteekin hartu-emanean. Saharaz hegoaldeko Afrikan jende gutxi bizi zen eta ondorioz ideia berriak erritmo txikiagoan etorri ziren, ez dago beste misteriorik. Izan ere, isolamendu hori apurtu denetik, sekulako garapena izan du Afrikak. Azkeneko 50 urteetan egin duen eraldaketa beste leku batzuetan mendeetan egin denaren parekoa da eta datozen beste 50 urteetan ere izugarri garatuko dira herrialde hauek.

> **“Hemengo jendeak erabakiko balu orain arte bezala bizitzen jarraitu nahi duela, ulergarria litzateke. Baina besteek aurrera egiten badute eta zuk ez, bihar besteen menpe biziko zara”**

Munduan bidegabekeriaren aurka dagoen erremintarik onena mugimendua da. Batetik bestera mugitzeko

Herri taupada
LARRABETZU
LARRABETZUN,
EUSKARAZ BIZI
www.larrabetzu.eus / udala@larrabetzu.eus
Facebook.com/Larrabetzu
Twiter.com/larrabetzuudala
Instagram.com/Larrabetzuko_udala
UeMA
UDALERRI EUSKALDUNEN MANKOMUNITATEA

erraztasunak egiten du ezberdintasunak gutxitzearen aldeko lanik onena.

Pobrezia ideia falta dela esan ohi duzu.

Pobrezia diru falta da, baina diru falta baino askoz gehiago ere bada, eta hori ulertaraztea sarri oso zaila da Euskal Herrian. Pobrezia umilazioa eta dependentzia ere bada. Pobrea denak obeditu egiten du eta dirua duenak agindu, eta bizitzako makina bat arlotan ikusten da hori. Pobrezia da ezjakintasuna, eskola falta, zure gertuko mundutxotik kanpo zer gertatzen den ez jakitea, mundua interpretatzeko informazio falta, gauzak modu txukun batean arrazoitzeko eskola falta...

Zergatik da garapena beharrezkoa?

Ez da beharrezkoa, saihetsezina baizik. Hemengo jendeak erabakiko balu orain arte bezala bizitzen jarraitu nahi duela, horretarako aske dira, noski, eta ongi irudituko litzaidake. Baina besteek aurrera egiten badute eta zuk ez, bihar besteen menpe biziko zara. Hemen libre biziko naiz zuk libre bizitzen uzten didazun bitartean, zeren zuk erabakitzen duzunean hemen dagoela zuk nahi duzun urrea edo zuk nahi duzun petrolioa edo safaria, nik ez dut indarrik izango zuk erabakitzen duzunari aurre egiteko, nire bizitzaren jabe izango zara. Pertsonek eta herriek garatu behar dute autonomia garatu ahal izateko eta eurak ere ederki asko konturatzen dira hona 4x4 batean datorrenak agindu egiten duela, eta hankutsik dabiltzanek ez dutela ez iritzirik, ez ahotsik, ez botorik.

> **“Afrikak azken 50 urteetan egin duen eraldaketa, beste leku batzuetan mendeetan egin denaren parekoa da”**

Hamazazpi urtetan, gauza asko bizi izan duzu.

Hemen lana egiteak nagusiki bi sentimendu sortzen dizkit. Batetik, pisua eta etsipena, eguneroko miseriarekin elkarbizitzea eta zoritxarrak bata bestearen atzetik ikustea ez baita samurra. Bestetik, zerbait lortzen ari zaren sentsazioa, aurrera goazela, miseriatik ateratzen ari direla eta bertakoak pozik daudela.

Etorkizun hurbilean non ikusten duzu zure burua?

Bizitzak buelta asko ematen ditu eta inoiz ez dakizu zer pasa daitekeen. Aspaldi ikasi nuen epe luzera planik ez egiten, gaur hemen zaude, baina bihar ez dakizu, senide bat gaixotu daiteke edo aukera berri bat sortu eta beste norabait joan. Auskalo.

Zein mezu bidali nahiko zenieke euskaldunei?

Mozambiketik begiratuta, Euskal Herriko gizarteari esango niokeen lehen gauza da mundua zabala dela eta ez gaitezela bizi gure zilborrera begira. Gainera, mundu zabal horretan gauza on asko ari da geratzen, jendearen bizimodua hobetzen ari da. Eta horrez gain, esango nieke Euskal Herrian bizi dituzten zailtasunak zailtasun, munduan ongien bizi diren %5en artean dagoela euskal gizartea. Beraz, disfrutatu, eta beste batzuei ere eman aberastasun horretatik pixka bat, norbere bizi-mailatik hurbilago bizi daitezen beste horiek. ●

Ikusi

Hamaika

nahieran



www.hamaika.eus

VALERIE MASSON-DELMOTTE
KLIMATOLOGOA

"Gaur egungo ekintzen heina arras eskasa dugu klima aldaketaren erronkari aurre egin ahal izateko"

Klima Aldaketari Buruzko Gobernu Arteko Taldeko lehendakarien artean izaki, ardura alimalea du Masson-Delmottek. Gainera, dirudi misio bat gehitu diola bere buruari: klima aldaketaren erronkaz ahal bezain bati kontzientzia harraraztea. Horretan dabil: Lurraman egin zuen gisara konferentziak burutuz, umeentzako liburuak argitaratuz, manifestuak izenpetuz, elkarrizketa eskaerak onartuz, ikastetxeetara joanez... Dakielako dakiela guztiok jakin beharko genukeena: aldaketak ez baditugu orain bideratzen, berantegi izango dela.

JENOFA BERHOKOIRIGOIN

Klima aldaketaren aurkako borrokari doakionez, mugatua daukagu denbora.
Bizi dugun aldaketa klimatikoa ez da soilik oraiko berotegi efektuko gasen (BEG) isurketen emaitza, iraganekoen emaitza ere da. Jakin behar da berotasun askoz gehiago dugula metaturik, batez ere ozeanoetan. Berotasunaren %90 ozeanoetara sartuta dago eta horri dagokionez ezin dugu ezer egin. BEG isurketak emendatzen jarraituz, ez diogu berotasun horri espaziora joaten uzten. Horrek airea eta zolak berotzen ditu, izotzak urtzen ditu eta ozeanoak oraindik gehiago berotzen. Azaleratuz, itsasoko ur beroek atmosfera berotzen digute. Hori horrela da eta itzulbiderik gabekoa dugu. Hori sesitzea aski zaila zaio jendeari, pentsatzen duelako termostat gisako zerbait daukagula esku artean, BEG isurketak tipituz iraganeko egoerara itzuliko garela. Hori ordea, ezinezkoa da.

Nola egonkortu dezakegu berotasunaren heina?
Biziki inportantea da karbono dioxidoen (CO_2) isurketak ahal bezainbat gutxitzea, berriz 0 heinera heltzeko gisan. CO_2 isurketak gutxitu arren, klimak berotzen segituko du, 0 heinera heltzean baizik ez da tenperaturaren egonkortze bat gertatuko. Laburbil-

tzeko: klimaren bilakaera ezin saihestuzkoa dugu. Izotzen urtzea, itsasoko uren igoera, idorte arriskuen emendioa... horrekin bizitzen ikasi beharko dugu, arriskuak kudeatzen ikasi beharko dugu, iraun ahal izateko egokitze estrategiak beharko ditugu. Baina, denbora gehiegi pasatzen utzi gabe, bideratu behar dugu aldaketa: BEG isurketen gutxitzearen alde gaurtik jardunez gero, egoera egonkortu daitekeelako 2050etik aitzina.

Eta ez baditugu gaurdanik BEG isurketen gutxitzearen aldeko neurriak hartzen?

Ez badugu horren alde gaurdanik jarduten edota ez badugu nahiko jarduten, hau da, BEG isurketak egonkortu bai baina ez baditugu gutxitzen, orduan klima aldaketa azeleratuko da, beroketaren ondorioak ere azeleratuz.

Gaur egungo egoera segituz zertara goaz? Alternatibak bai, baina orokortu gabekoekin nahikoa ote dugu tenperatura egonkortzeko?

Horrela timidoki eta emeki jarraituz? Ez. Gaur egungo ekintzen heina arras eskasegia dugu erronkari aurre egin ahal izateko. COP21 klimari buruzko Parisko akordioko promesei begiratzen badiegu, horrek erran nahi luke – guztiak gauzatuak balira, baina hori ere ez dugu egiten – BEG isurketek 2030 arte emendatzen segituko luketela! Horrela ez dugu beroketa hein apal batean mantenduko, mende bukaera artean hiru graduz emendatuko lirateke tenperatura. Dagoen inertzia heina ulertzea zaila dago, benetan!

Hiru graduko emendaketak zer suposatzen du?

Ideia bat emateko, horrek erran nahi luke Frantziako udarik beroena, 2003.

urtekoa demagun, uda arrunt bat izango dela. Beroaldiak askoz intentsoagoak izango dira, askoz luzeagoak. Horri ohitu beharko gara, gure bizien aisetasuna aldatuko zaigu, laborantzako ekoizpenei doakionez, uzta onen lortzea zaila izanen zaigu... Ekosistema batzuk bai ala bai desagertuko zaizkigu. Hauskorrenak itsaso tropikaletako koralezko uharriak ditugu, baina mendietako elurrari edota Ipar Artikoko izotzei loturiko ekosistemak ere desagertzekotan daude. Ekosistema hauen galtzeak ondorio latzak ukango lituzke elikadura-segurtasunean ere, ozeanoetako zein lur eremuetako ekoizpenak gutxituko dituelako. Eta ez pentsa gu hemen horretarik salbu izango garenik, aski da azken urteetako adibideei begiratzea sinesteko hemen ere ondorioak izango dituela.

> **"BEG isurketak egonkortu bai baina ez baditugu gutxitzen, orduan klima aldaketa azeleratuko da"**

Gosearen matxinadak errepikatzeko arriskua beraz.

IPCC Klima Aldaketari Buruzko Gobernu Arteko Taldearekin erakutsi izan dugu bi graduko emendioarekin jada ondorioak izango ditugula elikadura hornitze sisteman. Gaur egun 821 milioi pertsonak dute goseaz edota malnutrizioaz sufritzen. Azken urteetan ikusten ari gara idortearen ondorioz tropikoetako eskualde batzuetan elikadura segurtasun-eza areagotuz doala. Tokiko laborantza ez dabil ondo. Horren ondorioetariko bat ere dugu immigrazioa, jendea badoa, errefuxiatu bihurtzen da. Gainera, toki ezberdinetan dauden behar horiei erantzuten ez du lortzen laguntza humanitarioak. Egoera horiek biderkatuko dira eta kudeagaitzak izango dira, beroaldi eta idorteek une berean hunkiko dituztelako munduko gari selauru

ezberdinak. Adibidez, Ipar Ameriketako Ordoki Handiak hunkiak izango lirateke, baita Europa edota Errusia ere, guztiak batera. Funtsezko lehen gaien ekoizpena eta merkatua hunkiak daudenean, biztanleria pobreena da lehenik hunkia izaten.

Plateran daukagunak ondorioak dauzka. Hots, gure elikadura hautuek ere eraginak ditu klimaren gain.
Garrantzia handia du gure kulturan elikadurak, gure nortasunaren parte da. Gainera, guztiok gogoko dugu mahai baten inguruan jarri eta zeozer jatea lagun edota senideekin. Hori erranda, argi da plateran ezartzen dugunak ondorioak dauzkala klima aldaketaren gain ere. Elikadura hautuaren arabera, laborantza iraunkor eta arduratsu bat sustatzen duzu, edo alderantziz, nekazaritza intentsibo eta suntsikor bat. Hautu indibidual zein kolektiboek garrantzia handia dute.

Aurreikusitako egoera beltza ez duzute gehiago epe luze batean kokatzen. Bihar goizeko dugu 2030...
Epe luzera izango diren ondorio saihestezinei begira izateaz gain, epe hurbilean gertatuko denari ere begira gaude, 2050 urteari demagun. Oso laster etorriko zaigu eta aurreikusitako berotasun heina saihesteko gisan, berehalako aterabide potentzialei begiratzen diegu, existitzen dagoenari. Aterabideak badaude, esperimentazioa badago alde guztietan. Kontua da eskalaz aldatu behar ditugula, zabaldu eta orokortu behar ditugula aterabide hauek. Begira eraginkortasun energetikoari ala energia berriztagarrien arloari: duela hamabost urte ez genituen aterabideak dauzkagu gaur egun. Beraz, datozen urteak erabakigarriak izango dira: edo dinamika azeleratzen dugu, trantsizioa eta eraldaketa benetan gauzatuz, edo dinamika arrastatzeko helburuz dabiltzanek dute irabazten.

Sinple da: aldaketak berehala eta orokorturik edota berantegi izango da. Zein heinetakoa da agintari politikoen kontzientzia hartzea?
Benetako bilakaera bat sumatzen dut politikarien kontzientzia hartzean. IPCC txostenen idazkerarako mundu guztian zehar bidaiatu beharra daukat. Klima nahasmenduaren arriskupean diren herriei doakienez, kontzientzia hartzea orokortuta dute. Krisia bizi dute, dauzkaten ahultasunez eta ekimen ahalmenaren mugez kontziente dira. Europari dagokionez, tokiko hautetsien kontzientzia hartzea nuke azpimarratuko. Horiek ere lehen lerroan izaki, argiki ikusten dute ez daudela klimaren aldakortasunari egokiturik. Nola ez, gazteriaren kontzientzia hartzea ere hor dago, mundu guztian sendi dena. Klimaren erronkarekin eta bioaniztasunaren galtzearekin batera handitu diren pertsonak dira. Eman beharreko aldaketak bideratu ezinean dabiltzan erabakitzaileei buruzko ezinegona daukate. Enpresen sektorean ere sendi dut kontzientzia hartzea, usu langileen gogoeta pertsonalek bultzatuta. Finantza munduan ere ikusten dut zeozer azken aldi hauetan.

> "Aterabideak badaude, kontua da eskalaz aldatu behar ditugula, zabaldu eta orokortu behar ditugu"

Zer?
Gogoeta bat eramaten ari dira eta hori berria da. Aseguru egileek edota hauen aseguruen partetik ez da berria, baina zabalago ematen da hausnarketa. Orokorki, arriskuen gestioan dabiltzanen partetik da bideratzen gogoeta. Bi zentzutara begiratzen dute: klima aldaketari loturiko arriskuei, *arrisku fisikoak* deitzen dituztenak eta *trantsiziorako arriskuei*. Adibidez, dirua erregai fosiletan inbertitzen baldin badute eta aurkako zentzura doazen politika publikoak garatzen badira, orduan dirua galduko dute. Hori badakite eta finantzamenduei beste norabide bat eman behar zaiela dion analisia ere presente dago.

Baina lobbyak ere hor daude.
Ez nuke baitezpada *lobby* hitza erabiliko. Indiferentzia dago, fatalismoa eta aldaketarekiko gorrotoa ; nahiko orokortuta gainera. Galdera da: nola lortuko dugu joera horien gainetik pasatzen? Aldaketarako gorrotoa duten horiek nola lotuko ditugu guri? Haien beharra dugulako, eskala handiko aldaketa dugulako aterabide bakarra. Horiez gain, *duda saltzaileak* ditugu. Ikusi ditugu indartsu AEBetan, batez ere erregai fosilen sektorean, erabaki hartzaile, komunikabide eta iritzi publikoaren baitan duda sarrarazten. Manipulazio taktika hauek frogatzea ez da erraza. Uste dut denbora asko galdu dugula hauengatik.

Sistema aldatu gabe nekez aldatuko dugu klima.
Erabakiak hartzeko moldeen aldaketa beharrezkoa dugu. Epe laburreko errentagarritasunari begiratzearen logikarekin bukatu beharko dugu, ingurumena kontuan hartu beharko dugu. BEG isurketak tipitzeko balioko du erabakiak? Erresilientzia emendatzeko balioko du? Bioaniztasuna babesteko neurria izango da? Horiek izan beharko dira helburuak eta galdera hauen erantzunak beharko ditugu esku artean erabakitzerakoan. Ez gara horretan. ●

Euskararen Nazioarteko Eguna

Bilbon euskaraz

eleBI

Gu ere bertsotan
Mundu bat bertso

BilRobot
Tailerra

Ikusi eta ikasi
Ikuskizun zirkuitua

Zer daraBilbo?
Euskara erabiltzeko ekimenak

Euskararen dimentsioa
Sentiberatze kanpaina

Harrapazank
Gazteentzako aukera

Mikoleta
Eskolarteko ipuin lehiaketa

Ikusten duguna gara
D ereduaren alde

Bilboko euskaltegiak

Zinema euskeraz



Biribilko
Komertzioan ere euskaraz



nahidudalako.eus
Ikasketak euskeraz jarraitu

BertanBilbo
hiriburua eta euskera

B

www.bilbaoeuskaraz.eus

BERBALAGUN FEMINISTA BILBON

Feministak euskaratik eta euskaraz ahalduntzen

Berbalagun feminista abiatu dute Bilbon. Euskaraz ikasteko espazio seguru, konfiantzazko eta feminista. Interesatzen zaizkien eta zeharkatzen dituzten gaien inguruan euskaraz hitz egitea eta hizkuntzaren bidez ahalduntzea da helburua.

MALEN ALDALUR AZPILLAGA BERBALAGUN FEMINISTAK UTZIA

Egitasmo honen jatorrian, *Pikara Magazine* hedabideko lantaldearen beharrek eta erabaki politikoek egiten zuten bat. *Pikara Magazine* Espainiako Estatuko proiektu bezala garatu bazen ere, pasa den urtarrilean barne hausnarketa prozesu baten ondorioz, proiektua birdefinitzeko beharra sentitu zuten: "Hor adostu genuen Bilbon eta Euskal Herrian errotutako proiektua den neurrian, errotzean sakontzearen beharra, besteak beste, euskararen erabilera sendotuz, lantaldearen euskalduntzea sustatuz eta euskal kulturarekin zubi gehiago eraikiz", azaldu du June Fernández *Pikara Magazine*-ko kideak. Zubiaren beste aldean aurkitu zuten Bira gunea, kulturari eskainitako herri proiektua, eta giro horretan sortu zen Berbalagun feminista: Pikarak bultzatuta eta Birak lekua eskainita. Maiatzean hasi ziren egitasmoarekin eta orain astelehen arratsaldero elkartzen dira, 18:30ean, Bilboko Alde Zaharreko Bira espazioan.

Bertan aritzen dira berriketan Bea de Lucas eta Blanca Candelas. 40 urte ditu de Lucasek, getxoztarra da, A ereduan ikasia eta "familia ez euskaldunekoa". Horrek guztiak eragina izan duela uste du euskararekin duen harremanean. Gainera, kanpoan ibili da urte luzez, eta itzuleran bere hizkuntza maila asko jaitsi zela dio: "Bueltatu nintzenean euskara ikasten hasi nintzen euskaltegian titulua ateratzeko asmoz; titulua ateratzea lortu nuen, baina oraindik hitz egiteko zailtasunak ditut". Candelasek, berriz, txikitatik du euskaraz mintzatzeko gaitasuna, "nahiz eta etxean gurasoek ez duten egiten". Basaurikoa da eta B ereduan ikasi zuen. Bi adibide baino ez dira hauek, baina anitzak dira Berbalagun feministan elkartzen diren kideen profilak: "Euskaraz ikasten urteak daramatzatenak, duela gutxi hasi direnak eta Bilbon euskaraz bizitzeko tarteak aurkitu nahi dituztenak, besteak beste". Eta jende horrentzat guztiarentzat etxea izan nahi du Birak, euskaraz lasai hitz egin ahal izateko aterpe: "Espazioaren hizkuntza paisaiak izugarri eragiten digu hiztunoi, horregatik, Birak euskarara bultzatzen ditu hiztunak", azaldu du Lutxo Egia Birako kideak.

Gustura ari da berbalagun feministan Candelas, lagun baten bitartez izan zuen *Pikara Magazine*-k abiatutako egitasmoaren berri eta argi eduki zuen berak han egon behar zuela: "Nire etxetik oso gertu egiten da, eta euskara eta feminismoa uztartzen ditu". Berarentzat lehen saio hura "ikaragarria" izan zela dio, eta hortik aurrera beti joan da. Hasieran, *Pikara Magazine*-k egiten zuen egitasmoaren gidaritza, baina orain, modu autonomoan antolatzen direla dio de Lucasek. Hurrengo astean landuko dituzten gaiak denen artean proposatu eta erabakitzen dituzte. Whatsapp talde bat dute eta bertan partekatzen dituzte gaien inguruko artikuluak: "Aspaldi nenbilen euskaraz hitz egiteko espazio seguru baten bila, eta zein hobea berbalagun feminista baino?".

ZEHARKATZEN DIZKIETEN GAIAK HIZPIDE

De Lucasentzat bere lehen mintzalagun saioa da. Orain arte, egitasmo polita iruditu zaion arren, ez du inoiz parte hartu: "Berbalagun feministara animatu nintzen, besteak beste, niri interesatzen zaizkidan eta zeharkatzen nauten gaien inguruan hitz egiteko aukera eskaintzen didalako". Anitzak eta askotarikoak izan dira orain arte landu dituzten gaiak: tartean, Euskal Herriko Jardunaldi Feministak eta emakumeen eiakulazioa. Candelasek ere, horregatik erabaki zuen berbalagun feministara animatzea, izan ere, bere bizitzan bazituen espazio ba-

tzuk euskaraz hitz egiteko, baina feminismoaz eta feminismotik hitz egin nahi zuen euskaraz.

Dena den, hain gai konplexuez ondo menperatzen ez den hizkuntzan hitz egiteak zailtasunak ere badituela gogorarazi du de Lucasek: "Euskal Herriko V. Jardunaldi Feministen ondorengo astelehenean, esaterako, oso mugituta nengoen, gauza asko kontatu nahi nituen, erraietatik ari nintzen hitz egiten eta hitzak gaztelaniaz ateratzen zitzaizkidan". Hala ere, horretarako askatasun osoa izatea eskertzen duela dio: "Hitz bat ez bazait euskaraz ateratzen gazteleraz esaten dut eta ez da ezer pasatzen". Candelasek gaineratu du gai konplexuez hitz egiteak aurrelanketa ere ekartzen duela: "Hurrengo astean landuko dugun gaiaren inguruko artikuluak partekatzen eta irakurtzen ditugu, horrela, hizketa gaitasuna lantzeaz gain, irakurketa ere hobetzen dugu".

Berbalagun feministan espazio seguru eta konfiantzazkoa lortu dute biek, eskakizunik gabea eta beraien neurrira egina, "espazio feminista, azken finean". Euskalgintzak teoria feministatik hartu du ahalduntze kontzeptua, eta euren azaletan bizi izan dute hori biek. Berbalagun feministan oraindik hilabete batzuk baino ez badaramatza ere, jendaurrean euskaraz aritzeko konplexu asko galdu dituela uste du de Lucasek: "Berbalagun feministan nirekin batera dabilen lankide batekin, adibidez, orain beti euskaraz egiten dut". Norabide berean hitz egin du Fernándezek, aipatuz patriarkatuak emakumeon ahalduntzea mugatzen duela gure autoestimua eta gure ezagutza kaltetuz, eta uste du, horrek euskalduntze prozesua ere baldintzatzen duela: "Berbalagun feminista espazio segurua da konfiantza hartzeko eta ahalduntzea lantzeko".

Bestalde, de Lucasek argi du jende berria ezagutzeko aukera ere eskaini diela berbalagun feministak: "Nire militantzia eremuan, esaterako, badago jendea euskaraz dakiena, baina beraiekin gaztelaniaz eraiki dudanez harremana, orain zaila egiten zait hizkuntza ohiturak aldatzea". Egitasmo honek, jende berria ezagutu, berarentzat interesekoak eta garrantzitsuak diren gaien inguruan hausnartu eta euskarazko harreman sare berriak eraikitzea ahalbidetu diola dio.

Azaldu dute bertan parte hartzeko ez dela euskara maila jakinik eduki behar, ezta feminismo gaietan aditua izan ere: "Beste emakume batzuekin elkartu eta gai ugariren inguruan hitz eginez, eremu seguruan, tarte ederra pasatzeko aukera eskaintzen du". ●

BABARRUNAK IRAKURRI

Seguru beste hamar bat eratara esan dakiokeela euskaraz babarruna aletzeko ekintza horri.

JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Omiasainduz fruitu guztiak sartuak" dio esaerak. Mandio bete sagar, kuia eta kiwi da geurean (*Malus domestica, Cucurbita maxima* eta *Actinidia chinensis*). Beste asko bete arto (*Zea mays*) izango dira; edo bete babarrun (*Phaseolus vulgaris*); patata (*Solanum tuberosum*), tipula (*Allium cepa*) edota abar.

Babarrunaren bildu ondorengo lanetara kateatu ginen aurreko batean *Landaberri* irratsaioko kontsulta saioan. Lekak bildu eta eguzkitan egun pare batez eduki ondoren, etxe gehienetan aletu egiten dira. Horretarako zakuetan sartu eta jo eta astindu egiten dira leka iharrak. Lekak ondo lehortuta badaude, ia denak hustu eta aleak jaulkiko dira. Gainontzekoak eskuz aletu beharko dira. Hemen sortu genuen zoramena. Nola aletu? Irunen leikua kuxkildu egiten dugu. Guk bahean beste gai batzuk egiten diren bezala aleak eralki egiten ditugu. Muruetan garandu egiten ditugu. Bada, Durango, Eibar, Angiozar eta Debagoiena osoan, Abadiñon eta Garain urkuldu esaten diogu. Oñatiko Araotzen lekak irakurri egiten dira. Mungian ere garandu diogu. Bada Debagoienan baita karandu ere. Oiartzunen kirkildu. Arantzan bereizi esaten zaio. Eta, urrutira gabe, Beran miartu esaten diote. Larraunen, Azpirotzen eta Leitzan, berriz, jalki. Erratzun begira zer dotore esaten diogun: bixkortu. Zugarramurdin lan hori bahitzea da. Arratian zeruketan egitea; hori bai dotorea! Oiartzunen ere aletu. Hondarribian koxkildu. Eta, ez dakit nondik: zakuan ez da jaulkitzen, erantsi egiten da!

Larunbatari ekiteko saltsa ederra! Seguru beste hamar bat eratara esan dakiokeela euskaraz babarruna aletzeko ekintza horri. Inork bateren bat jakinez gero idatzi, mesedez.

Bigarren saltsa babarrunarekin berarekin. Izan ere, nola babarruna! Arratian baba gorria. Azpirotzen, banarra. Oiartzunen, Arantzan eta Beran ilarra. Indiarra Mutrikun. Leitzan, Baztanen eta Larraunen banabarrak. Beasainen indoaba. Tolosan indiababa. Gernikak intxaba. Ultzaman babanabar. Erratzun ilar gorria. Debagoienan babarruna, baba beltza eta idarra.

Leka babarrun alez jantzia dago. Erantsi egiten dugu, elikatuko gaituena eskuratuz. Eta horri irakurri esaten zaio. Izan ere, zer da ba irakurtzea, elikatzen gaituena eskuratzea ez bada? Burua elikatzea, alegia. Eta janez jantzi. Alez osatutako leka gara. ●

LEGAZPIKO UDALA
www.legazpi.eus

GUREAN EUSKARAZ
nonahi sentituz, gogoz, pasioz...

Legazpiko Euskara Zerbitzua
Tel.: 943 737 191 • euskara@legazpi.eus

Legazpi euskara
Bat eginik, hazten goaz

GOIEKO HARAGIA

GOIERRIKO ABELTZAIN EKOLOGIKOAK ELKARLANEAN

GARAZI ZABALETA
@TIRIKITRANN

"Gure hautua da betiko baserriarekin jarraitzea, behi gehiago jarri gabe. Gaur egun hori da ekologikoa, beraz, modu naturalean hartu dugu bide hori".

Goierrin txekor haragia zigilu ekologikoarekin ekoizten duten sei baserritar daude gaur egun, eta guztiak batzen dituen proiektua da Goieko Haragia. Sei baserritarrentzat jarduera osagarria da haragia, beste esparru batzuetan ari baitira lanean: esnekietan eta barazkietan, bereziki. "Beste hainbat esparrutan elkarlana martxan zen, esaterako esnekiekin Behieko proiektua zegoen, eta horregatik pentsatu genuen haragi paketeekin ari ginen lau kideak elkartzea", azaldu du Aitor Aranburu "Anbu"k, proiektuko kideak.

BERTAKOA ETA AGROEKOLOGIKOA

Ekoizpen eredu txikietan dihardute proiektuko sei ekoizleek, hamar behi baino gutxiago dituzte denek ere. Abereen bizi baldintzak eta zikloak errespetatuz egiten dute lan, horien elikadura baserriko bazka eta larreetan oinarritzen da, eta ez dute pestizida, herbizida eta ongarri kimikorik erabiltzen. "Nire ustez eredu ekologikoa ez da helburua, abiapuntua baizik: gure hautua da betiko baserriarekin jarraitzea, behi gehiago jarri gabe. Gaur egun hori da ekologikoa, beraz, modu naturalean hartu dugu bide hori", dio Aranburuk.

Ekoizle bakoitzak bere aldetik saltzen du haragia, bakoitzak bere bezeroak ditu-eta. Baina hauez gain, duela zenbait urte aukera berri bat atera zitzaien: Orona Fundazioko Diametro 200 jatetxeak haragia beraiei hartzeko proposamena egin zien. "Bakoitzak bere aldetik, bakarrik, ezingo genuke Orona zerbitzatu, baina elkarlanean eta gure artean antolatuta bai", dio.

HASIBERRIENTZAT SOSTENGU

Goieko Haragian hasi ziren lau ekoizleei bi lagun batu zaizkie orain: Mutiloako eta Segurako bi gazte hasiberriak dira lehen sektorean, bata esne behiekin eta bestea barazkiekin. Jarduera nagusi hori behi haragiaren salmentarekin osatzen dute. "Guri bidea asko erraztu digu proiektu honek, zeren zu honetan hasten zarenean ez dakizu ezer, ez duzu kontakturik, ez dakizu nola saldu, norengana jo, zer hiltegi dauden... Goieko Haragikoek esku zabalik hartu gintuzten eta gure hasiera asko erraztu digu", dio Iñaki Intxausti proiektura batu den gazteak.

600 gramoko zortzi pakete txikiz osatutako bost kiloko loteak saltzen dituzte: xerrak, kostila, haragi txikitua, gisatzekoa, zankarroia eta txuleta daude lotean. Eta goiekoharagia.wordpress.com webgunetik ere egin daitezke eskaerak. ●

ASTEKO PORTADA HAUTATUA

2016ko otsailaren 14a

KOLDO IZAGIRRE

Berrogei urte lehenago, 1977ko urtarrilaren 23ko azalean, *Zeruko Argia*k galde egiten zigun ETAk etorkizunik ba ote zeukan. Eta talde armatu bati ez ziola etorkizunik opa argitu ondoren, bere iritzia jakinarazi zigun editorialean: "Euskal Herriari sozialismo eta askatasun bideak bortxaz ukatzen zaizkion bitartean, borroka armatuak baduke erantzunik". Hogei urte geroago —sozialismoa agendatik jausia zen ordurako—, eta formula apur bat berrituz, demokrazia homologatu batean borroka armatuak herriaren onespenik ba ote lezakeen galdetzen ahal genuen. Zehaztasun eskergarriz, onespenak biltzeko gatazka armatuak *eraikitzailea* izan behar lukeela zeritzon Emilio Lopez Adanek 1996an *Elkarri* aldizkariari emandako solasean. Tristea, etsaiari aurre egiteko baino, etsaiari aurre eginez herria altxarazteko sortu zen erakundearen patua. ●

EUSKAL PRENTSAREN HISTORIA

Euskarazko lehen egunkari hura



MIREN OSA GALDONA

Gutxi edo apenas izan du tarterik gure memorian, ustez lehen egunkaria izan behar zuen 1929ko saiakera hark.

Hemeroteka.com webgunerako *Argia*ren materiala digitalizatzen ari zirela aurkitu zuten Armiarmako kideek izenik ez duen egunkariaren 0. zenbakia, Koldo Izagirrek botatako amuari tiraka. 1929an Donostiako *Argia* astekariarekin batera lehen euskal egunkaria izan behar zuenaren prototipo bat kaleratu zen, eta Josu Landak dion moduan, ez da kasualitatea orduan kokatzea lehen mugarria, besteak beste, Lizardiren eragina nabarmena baitzen. "Lizardik idatzia zuen orduko Euskadi Buru Batzarreko kideei graziarik egin ez zien artikulu bat, non sotanarik gabeko egunkari baten alde egin beharra aldarrikatzen zuen".

Euskaltzaleak taldeak azaldu zuen euskarazko egunkari bat kaleratzearen ideia, eta garaiko hainbat idazle erreferente batu ziren proiektura. Donostiako *Argia*k –garai horretan *Zeruko Argia*rekin lotura zuzenik ez zuenak– jarraipena egin zion mamitzen ari zen ekimenari, oso harreman estua eta gertukoa edukitzeraino. Lizardik aipatu omen zuen hutsetik hedabide bat sortzea baino, ea ez ote litzatekeen egokiago jada artikulatuta zegoen *Argia* astekariari egunkari izaera ematea, langile eta inprenta berrien beharrik eduki gabe. Unea ere primerakoa zela pentsa daiteke: egoera politikoak halako asmoak gauzatzeko "askatasuna" bermatzen zuen, *Argia*k irakurle multzo sendoa zuen, kazetaritza modernorako baldintzak zeuden... Bada, arazo ekonomikoak tarteko *Argia* ez zen egunkari bilakatu.

Itxura deigarria du 0 aleak. Orduko estiloari jarraiki, zutabe luze, hizki txiki eta informazio andana biltzen du lehen orrian; argazkiak ere baditu, baina ez egun ematen zaien protagonismo berarekin, askoz mugatuagoa baita azalean duten espazioa. *Eziña egiña?* dioen editoriala ezker aldean, euskarazko kazetaritza egunero argitaratzea posible litzakeela frogatzen duen adibidea da. Tokian tokiko gertakariak ere biltzen dira bertan, hainbat herritako albisteak zerrendatuz. Bitxia da, esaterako, *euskaldunen ogibideak* izeneko atala izatea, eta nekazaritza, arrantza eta lantegietako hotsak baino ez jasotzea; euskaldunon iruditegi klasikoa jarraituz. Eta zer esan publizitateaz: lejiak El Leon, "egin itzazu zure erosketak La Ciudad Condal-en", "nueva sastreria 'Olano'ren etxea", Restaurant Recondo... Ez ziren gutxi lehen egunkari euskaldunari bultzada emateko prest zeuden iragarleak, ezta berau irakurriko zuketen irakurleak ere.

Ale bakar hartan geratu zen 1929ko lehen euskal egunkaria sortzeko saiakera. Eskerrak geroztik euskarazko egunkaria gauzatu zen, behin eta birritan. ●

GOGOETAREN PLAZAKO MAHAI-INGURUAK

Durango liburu eta diskoetatik harago

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Euskal kultura hasi da proiektu berriak aurkezten. Telebista jostailu, perfume eta kotxeen iragarkiak sartzen hasten den garai bertsuan. Arrazoia ez dira Gabonak, ez zuzenean, behintzat, denok aski ezagun dugun urteroko Durangoko liburu eta disko azoka da. Baina salmentak erakartzen duen jendearentzat badago beste eskaintza bat ere, liburu eta diskoetatik haragoko egitarau bat.

"Gogoetaren plaza" dinamizatuko du aurten ARGIAk. Gune honetan salgai dauden liburuen aurkezpen eta azalpenak egiteaz gain, kulturaren bueltan pil-pilean dauden gaien inguruko eztabaida, mahai-inguru eta hitzaldiak antolatzen dira. Hori da Mendeurrenean Gerediaga elkarteak ARGIAri egin dion oparia.

Adi, aurten Gogoetaren Plazako mahai-inguru denak Musika Eskolako Areto Nagusian izango baitira. Landako gunetik gertu dago.

ZER GAI ETA ZER GONBIDATU

Abenduaren 6an, ostirala, 12:30ean, *Gu gara euskal prentsa: euskaraz eta ez elebitan* mahai-inguruak irekiko ditu ateak. Indartsu. Josu Landa (1980an *Argieroa*, 1990ean *Euskaldunon Egunkaria*ren hazia erein zuen taldekoa) eta Elixabete Garmendia (*Zeruko Argia*n, ARGIAn eta Euskal Telebistan kazetari aritutakoa) izango dira hizlariak eta Gorka Bereziartuak (ARGIAko erredaktorea eta *Ez gara neutralak* liburuaren egilea) gidatuko ditu.

"... eta debalde ematen diot herriaren aurikularrari...". Lizentzia libreak kulturgintzako alorretan zertan diren landuko dute abenduaren 6an bertan, 18:30ean. Mahai-ingurua osatuko dute Gotzon Barandiaranek (idazlea, lizentzia librean ari den Susa argitaletxeko kidea), Miren Narbaizak (musikaria. Bakarlari ibilbidea Mice gisa egiten ari da eta diskoa lizentzia librean argitaratu du), eta Dabid Martinezek (informatikaria. Software librearen, jakintza askearen eta pribatutasunaren defendatzaile sutsua), eta moderatzailea Axier Lopez izango da, hau ere ARGIAko erredaktorea.

Kultura lana da izenburupean landuko dute profesionalizazioaren gaia abenduaren 7an, larunbata, 12:30ean. Gonbidatu dituzte Maite Mutuberria (ilustratzailea. *Lohia* album liburua argitaratu du), Danele Sarriugarte (itzultzailea eta idazlea. *Erraiak* eta *Azala erre* nobelak argitaratu ditu) eta Jurgi Ekiza (musikaria, Willis Drummond taldeko kidea. Bakarlari ibilbidean Ekiza gisa diskoak argitaratu ditu). Eta hirukotea arrastoan mantentzeko, Gorka Bereziartua.

Euskara integrazio hizkuntza. Zer diote euskaldundutako euskal herritar berriek?, da laugarren mahai-inguruaren titulua. Abenduaren 7an, larunbata, 18:30ean izango da eta berak biribilduko du Gogoetaren Plaza. ARGIAko erredaktorea eta euskara gaietan zailduta-koa den Onintza Iruretak moderatuko du taldea: Tarana Karim (Azerbaijanen jaio eta Tolosan bizi den emakumeen eta elkarbizitzaren aldeko aktibista), Bouba Diouf (Senegalen jaio eta Bilbon bizi den kale-saltzaile eta sukaldaria) eta Petra Elser (Alemanian jaio eta Euskal Herriko hainbat txokotan bizi izandakoa. Itzultzailea eta euskara eta etorkinen integrazioaren aldeko ekintzailea). ●

Adi, aurten Gogoetaren Plazako mahai-inguru guztiak Durangoko Musika Eskolan izango dira, Landako gunetik oso gertu.

Bibliak jo zion buruan Newtoni

NAGORE IRAZUSTABARRENA URANGA

Lincolnshire (Ingalaterra), 1665 edo 1666. Isaac Newton (1643-1727) Woolsthorpe Manor-era, amaren etxera itzuli zen, izurri bubonikoaren eraginez Cambridgeko Unibertsitateak ateak itxi behar izan zituelako. Egun batez, lorategian zegoela sagarrondo batetik sagarra erori eta buruan jo omen zion. Newtonek berak ez zuen pasartea sekula idatziz jaso eta, sagar bat erortzen ikustea grabitatearen teoriarako inspirazio iturri izan zuela biografo askok aipatu arren, badirudi buruko kolpearena apaingarri hutsa izan zela. Baina ordurako Newtonek buruan zeukana Biblia zen. Zientziari ekarpen handiak egiteaz gain, egun bateraezinak diruditen beste hainbat arlo jorratu zituen. Milioi bat hitz utzi zituen idatzita alkimiari buruz, eta beste hiru milioi teologiari buruz.

Matematika eta Bibliako Danielen liburua uztartuz, apokalipsia noiz izango zen kalkulatu zuen Newtonek: "Orduan 'denbora, denborak eta denbora baten erdia' 42 hilabete dira, edo 1.260 egun edo 3 urte eta erdi, urteko 12 hilabete eta hileko 30 egun kontatuta, jatorrizko urteko egutegian egiten zuten bezala. Kristo ondorengo 800 urteko hiru errege-en konkistatik abiatuta eta bizitza laburreko piztien egunak eta izandako erregealdiak gehituta, 1.260 eguneko aldia Kristo ondorengo 2060 urtean bukatuko da". Horraino azalpenak ulertezina baina zehatza zirudien. Baina hurrengo esaldiak kutsu zientifikoa nabarmen kendu zion ikerlanari: "Geroago amaitu liteke, baina lehenago ez". Eta badaezpada, asmatzeko aukerak gehitu zituen beste data batzuk botata: 2344, 2370...

RUPERT & MARIE BOAS HALL

ISAAC NEWTONEK APOKALIPSIA 2060AN GERTATUKO DELA KALKULATU ZUEN, TEOLOGIA ETA MATEMATIKA UZTARTUZ.

Baina, lasai, Newtonek ez zuen apokalipsia suntsipenarekin eta munduaren amaierarekin lotzen: bere irakurketaren arabera, Kristoren bigarren etorrera gertatuko da 2060an –edo geroago–; nolabaiteko garbiketa izango da baina munduak aurrera egingo du.

Zoritxarrez, Newtonek teologiatik egindako aurreikuspenei nolabait ere arrazoia ematen diete gaur egun ikerlan zientifikoek. Eta orduan Kristok ere ez gaitu salbatuko. ●

GORA
EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA!
Denona eta denontzat
steilas

EUSKARAREN EGUNA

SAN TELMO

DONOSTIAn EUSKARA HITZEZ HITZ, AHOZ AHO

AZAROAK 29 OSTIRALA

“Euskara ibiltaria” erakusketa

Otsailaren 23ra arte zabalik goizez eta arratsaldez.

SAN TELMO MUSEOA

AZAROAK 30 LARUNBATA

Goazen (solasaldia eta *photocalla*)

Aktoreak: Lorea Intxausti (June), Xanti Korkostegi (Igor), Markel Sainz (Danel). Produkzio eragilea: Xabi Zabaleta.

18:00-19:30 · SAN TELMO MUSEOA

Kontzertua: Ainhoa Larrañaga

Iker Lauroba (kontrabaxua, gitarra), Amaia Miranda (gitarra), Garazi Esnaola (pianoa) eta Haritz Lauroba (bateria).

21:00-22:00 · SAN TELMO MUSEOA

ABENDUAK 01 IGANDEA

Hitzaldia: “Ideiatik zinema-aretora”

Hizlaria: Telmo Esnal zinema-zuzendaria.

12:00-13:00 · SAN TELMO MUSEOA

Zinema: “Erraiak”

Irrintziari buruzko dokumentala + solasaldia Ekain Mtz de Lizarduy zuzendariarekin.

17:30-18:30 · SAN TELMO MUSEOA

Zinema: “Margolaria”

Filma + solasaldi musikatua Mikel Urdangarinekin.

19:00-21:30 · SAN TELMO MUSEOA

ABENDUAK 03 ASTEARTEA

Mintzodromoa + Mintzanet

10:00-10:45 · SAN TELMO MUSEOA

Euskaraldia

Kale ekintza.

11:00-11:25 · ZULOAGA PLAZA

Mintzodromoa + Mintzanet

11:30-12:30 · SAN TELMO MUSEOA

Mintzodromoa

17:00-18:00 · SAN TELMO MUSEOA

Bertsoaren harria (Bilintx) saioa

Koldo Izagirre, Beñat Gaztelumendi eta Maialen Lujanbio.

19:00-20:15 · SAN TELMO MUSEOA

ABENDUAK 04 ASTEAZKENA

Hitzaldia “Euskararen erabileran eragiten duten faktoreak”

Hizlariak: Olatz Altuna (Soz. Klusterra) eta Natxo Sorolla (Soziolinguista. Rovira i Virgili Unibertsitateko irakaslea).

18:30-19:30 · SAN TELMO MUSEOA

* **OHARRA: Ekitaldi guztiak doan dira. Sarrera librea, lekua bete arte.**

DONOSTIA SAN SEBASTIÁN Euskara

STM San Telmo Museoa

donostia kultura

bagera Donostiako EuskaltzaleenElkartea

mintzanet

www.donostiaeuskaraz.eus
www.santelmomuseoa.eus

KASKEZUR
Musika taldea

DESEROSOTASUNAREN POTENTZIAL SORTZAILEA

Lau lagun: baxua, bateria, bi gitarra eta jarrera inpostatuei ihes egiten dieten bi ahots. Eboluzio interesgarria egiten ari da Kaskezur taldea hamarkada honetan. *Ihesi doaz animaliak* (Mukuru, 2019) da musikari gisa egiten ari diren bilaketaren azken emaitza. Soinu aldetik aurrekoak baino gardenagoa eta ñabarduraz betea iruditu zaigun disko horretaz solasteko elkartu gara Ion Mindegia eta Iñigo Belzunegi taldeko kideekin.

GORKA BEREZIARTUA MITXELENA
ANDER IRIBARREN

Urriak 18, Bera: kalean sumatzen hasia den hotzetik eskapo eginez, bete-beteta dagoen Kataku ostatura sartu gara. Gaur kontzertu eguna da, Kaskezur talde baztandarrak *Ihesi doaz animaliak* aurkeztuko du, musikazale askoren arreta deitu zuen 2017ko *Azpisugeak*-en ondoren laukoteak argitaratu duen lan berria: hamar kanta, taldearen jarrera inkonformistaren erakusgarri. *Gora!* izeneko lehen piezak egoera surrealista baten kontakizuna egiten du –"Bat-batean lurra sabai bihurtu zen eta gauzak gorantz erortzen hasi ziren"– eta taldearen hotsak ostatuaren jabe bihurtzean kontua hain urrun iritsiko ez den arren, kontzertu beroa izanen da. Bigarren kantarako publikora salto eginen du mikro batek, gitarraren astinaldi batean taldekideen edariak eszenatokiko lurrean barreiatuko dira eta bateria-jolearen erresistentzia fisikoa noraino iristen den neurtzen bukatuko dute, itxura guztien arabera aurreikusitakoa baino kanta gehiago jo dutelako. Gogoangarria.

Handik pare bat astera taldeko bi kiderekin eserita gaude Iruñeko Katakrak liburu-dendako kantinan. Elkarrizketaren une batean, kontzertu hori aipatuko da. "Nahiko askeak izaten saiatzen gara zuzenean", dio Ion Mindegiak, taldeko gitarretako eta ahotsetako batek. "Jotzen ditugun instrumentuak gehienbat analogikoak dira. Sentitzen duzu hatza, pua, bateriaren indarra... Lantzen badituzu dinamika horiek, ez dago hori berdintzerik". Alboan dauka Iñigo Belzunegi, beste gitarra eta ahotsa, Katakuko giroaz hasita atzera begira jarri dena: "Ni rockaren munduan lehengusu zaharrek sartu ninduten. Oroitzen naiz hura zela esze-

nariora igo, saltatu... kristoren jaleoa. Orain hori ez dut ikusten, eta niretako da gauza inportanteenetako bat historia guzti honetan".

Zuzeneko jarrera hori ote da Kaskezurren hastapenetatik iraun duen gauzetako bat? 2000ko hamarkadaren erdialdean eskandinaviar estiloko rock-and-rolla egiten hasi zen taldea eta bi disko argitaratu zituen. Gero, *Ilgora*-rekin (2013), bide propioago baten bila hasi zen eta bilaketa horretan hirugarren geltokia da *Ihesi doaz animaliak*. "Gure ikuspuntua aldatu da, gitarrak garbitu ditugu eta nahi ditugu izan kolore gehiago", dio Mindegiak. Belzunegik gehitu du, aurreko diskoaren aldean, azken lan honek "gorabehera gehiago" dituela. "Ikasi nahi dugu kantetan egoera ez horren lasaietan egoten", jarraitu du. Hori izanen da elkarrizketako gai inportanteenetako bat: deserosotasunetik zenbat sortu daitekeen.

Ez da musikari gisa bakarrik praktikan jartzen duten zerbait. Belzunegik azaldu duenez, entzule gisa ere bilatzen ditu lehenbiziko entzunaldian hain erraz sartzen ez diren musikak: "Lehenbizikoan sartzen denak aspertzen ahal zaitu", dio; deserosotasunak, aldiz, "beste bide batzuk eraikitzen ditu" bere ustez. Adibide konkretu batera eraman du gaia Mindegiak: "Bi gitarra dauden lekuan, bat desafinatuta egotea niri gustatzen zait batzuetan, zeren hori da klixeetatik aparte mugitzea. Niretako bizirik mantentzen zaituena da, erresistentzia antzeko bat".

Musika abiapuntu horretatik eginda, noski, *Ihesi doaz animaliak* ez da disko erraza. Baina haren konplexutasuna ez da kriptikoa izatera iristen, pop egiturari eusten diolako. "Nik beti jartzen dut Wilcoren adibidea", dio Mindegiak:

"Estruktura nahiko tipiko bat, baina une batean galtzen dutena beste zerbait bilatzeko". Eta beste zera horren bilaketan, azken disko honetan, lagun izan dute Borrokan taldeko Ibai Gogortza, ekoizle lanak egin dituena. "Adibidez, *Keinuak* kantan esan zigun: 'Probatu lehenbiziko minutu eta erdian abestu gabe'; asko lagundu digu beste ikuspuntu bat sartzen".

> **"Klixeetatik aparte mugitzeak bizirik mantentzen zaitu, erresistentzia antzeko bat da"**

BERAKO KONEXIOA

Gogortza ez da diskoak daukan konexio beratar bakarra: bigarren kanta entzuten duenak (*Euria*), zerbait ezaguna aurkituko du: Joseba Irazokiren *Euria ari du* diskoko bigarren abestiak letra berdina zeukan. Bertsio bat? Adaptazio librea? "Ez dakigu nola deitu", erantzun du Mindegiak. "Letra musikaren gainetik sartu eta ematen zuen Irazokirenaren bertsio negatibo bat. Komentatu genuen Josebarekin, bera pozik –bueno, Joseba beti dago pozik–, esan zigun ilusioa egiten ziola; eta guk: 'Bai zera, ilusioa gurea!'. Eta gero sartu zuen gitarra ere kanta horretan".

Miren Narbaiza *Mice*-ren ahotsa ere entzun daiteke publikoa saltoka jartzeko pentsatua dirudien *Buztinezkoa* kantan. "Beti ikusten genuen elkar kontzertuetan, gero

elkarrekin jo genuen Joseba B. Lenoir eta Kaskezurrek; eta *Azpisugeak* egin genuelarik, Miren eta Joseba etorri ziren grabaketara. Gero ere harremana izan dugu, beti hor zegoen elkarrekin zerbait egiteko zera hori. Azkenean, diskoa grabatzera gindoazenean erran genion: 'Kantatuko duzu?' eta berak baietz. Eta gainera kanta punkienean. Mirenen ahotsa ez da horren polit eta oniriko entzuten, zuzena da, eta nik uste laguntzen duela emakume baten ahotsa egoteak hor ere", azaldu du Mindegiak. Abesti horren letra Oskar Alegriak eta Bernardo Atxagak Iruñean eman zuten Oteizari buruzko hitzaldi batetik atera zen. Orioko artistaren bideo bat ikusi ondoren, Alegriak honakoa esan omen zuen: "Ikusi duzue ze buztinezko pentsamendua, bera buztinezkoa da, buztinezko burmuina dauka, buztinezko ideiak". Kantaren errepikak berriz *Quosque Tandem...!* liburuan euskal estiloaz esaten zuenetik edaten du: "Librea, naturala, jarraia eta ibiltaria".

> **"Ez dakigu nondik joan, baina horrek berak irekitzen dizu bide bat"**

Aurreko diskoan sumatzen zen Sonic Youth eta tankerako taldeen kutsuak hor jarraitzen du, baina Kaskezurrek bere bidea egiten jarraitzen du, deserosotasunetik elikatzen: "Ez dakigu nondik joan, baina jarrera horrek irekitzen dizu bide bat", dio Belzunegik. "Nik uste kanta hauek ulertzen direla, baina nahiko nuke etorkizun batean bertze situazio batzuetara ere joan, egoera ezberdinagoetara. Eboluzio bat bilatzeko bidea izaten ahal da". Bilaketak nora eramango dituen hurrengo lanetan ikusiko da. Momentuz, urtarrilera arte lotuta dituzte kontzertuak ia astebururo: ez utzi animalia hauei ihes egiten. ●

STEAM
ESPERIMENTUAK
haurrentzat
Etxeko zientzialari txikientzako liburua



elhuyar
ezagutuz aldatzea

Nor naiz begiratzen ez banaute?

Panpina, antzezlana

Zerbait abstraktua, probokatzailea, intimoa, zirikatzailea, umoretsua, iluna. Panpinaren unibertsoa aztertu eta izkina guztietara iritsi da Erika Olaizola (Azpeitia, 1989) sortzailea. Obra honetan barrutik atera zaiona proiektatu du.

AINHOA MARIEZKURRENA ETXABE
KAMIKAZ KOLEKTIBOA

Erika Roiboos aktore famatuaren figurak beteko du agertokia. Argiak eta itzalak, literalak zein metaforikoak. Ez da alferrikakoa protagonistak sortzailearen izen bera edukitzea, lan pertsonal eta intimoa dela baieztatu baitu. Biluztu egingo da Erika, protagonista zein artista. Antzezlan zintzoa da, sormen prozesu aske batean ateratako materialaren emaitza.

Urriaren 31n estreinatu zuen *Panpina* Azpeitiko Antzerki Topaketetan, etxean. Familia eta lagunak, antzerkizaleak zein profesionalak hurbildu zitzaizkion eta harrera ona izan duela kontatu du: "Publikoa beti da garrantzitsua, baina kasu honetan presentzia handia du. Formatua oso gertukoa da, harremana oso zuzena eta uneorokoa". Estreinaldia Soreasu antzokian egin zuen eta publikoa harekin batera eszenatokian egotea planteatu zuen, "horrek sortzen duen urduritasun eta berotasunarekin". Lan honek inprobisaziorako tartea eskaintzen du, publikoarengandik asko jasotzen duelako.

Bakarrik dago Olaizola eszenatokian, baina ez da horrela sentitu. Izan ere, sormen prozesu guztia Leire Arenas irudigile eta ilustratzailearekin eta Oier Guillan idazle eta antzerkigilearekin batera egin du: "Guztia nire gain hartzea gehiegi da. Une batetik aurrera, beharrezkoa da ardurak banatzea, bakoitzak bere aldetik begiratzea, talde giroa sortzea eta ez hain barrura kontzentraturiko zerbait bakarrik. Uneoro debatitzen ditugu gauzak, hausnartzen. Zuk hau horrela jaso, nik hau horrela bizi. Horrek asko aberasten du".

SORMEN PROZESU ABERASGARRIA

"Panpina horrek zer iradokitzen dit? Zer dio nitaz unibertso horrek? Zer dago panpinaren atzean? Noiz sentitzen zara edo gara panpina?". Galdera horiek izan dira sorkuntzaren abiapuntu. Jolaserako espazio bat sortu dute arauak beraiek jarriz, epaituak izateko asmorik gabe: "Askatasun horrek barruan zegoenari forma emateko aukera eman dit". Prozesu guztian errepikatzen zen zerbait antzeman zuten: besteon begiradarik gabe bere izaera galtzen duela panpinak. Eta horregatik ere bilatu dute publikoarekiko gertutasuna.

Ekipo ona egin dute hiru sortzaile hauek, antzerkiaren oinarriak nork bere indarretik landu baitituzte: hitza, irudia eta gorputza. "Leire Arenas Arte Ederrak ikasi duen azpeitiarra da. Bere lana jarraitu dut eta intuizioa izan zen prozesu honetan berarekin aritzea. Banekien sormen prozesuan egotea nahi nuela; eta ziur nekien kartela berak egitea nahi nuela, baina ez nuen hori bakarrik nahi. Lehen aldia da antzerkiaren eremuan aritu dena, hizkuntza hau ez baitzuen inoiz hitz egin. Oso figura garrantzitsua izan da". Biak ala biak sortzaileak izan arren, lan egiteko modu desberdinek harrituta utzi dituzte: "Aho zabalik utzi du gure erabakiak hartzeko azkartasunak eta lan egiteko moduak. Niri, ordea, testura edo koloreetan jarritako arretak liluratu nau, gero kartelean, adibidez, islatzen duena". Guillan berriz, lehendik ezagutzen zuen Olaizolak eta bazekien zein zen haren lan egiteko modua: "Oierrek hitza maneiatzen du eta horrek asko fintzen ditu ertzak. Inprobisazioetatik jasotako materiala bildu eta birplanteatzen ibili da. Kanpo begirada hori jarri du".

Azken fasean, Jabi Barandiaran eta Idoia Beratarbideren laguntza ere izan dute, argi teknikari lanak eta aholku estetikoak eman dizkiete: "Orduan borobildu dugu dena".

EMAKUMETZEAREN AZPIAN

Gaiak, nahiak eta intuizioak denon artean jarri dituzte mahai gainean, baina Olaizolaren esentzia hartuko du ikusleak. Gaztetasunetik heldutasunerako une horretan aurkitzen dela adierazi du eta horrek, nahi gabe, emakumetasunaren azpigaira darama: "Ez dugu antzezlana honetarako edo hartarako sortu nahi izan, ez dut inongo momentuan antzezlan honekin banderarik hartu nahi

izan, inondik inora. Baina nire buruari sortzeko askatasuna ematen diodanean, nire kezkak azaleratzeko, irten egiten da hori. Emakumea naiz eta hortik hitz egiten dut, naturala iruditzen zait".

Publikoaren iritziei dagokienez, bereziki emakumeek zenbait kontu eszenaratzea eta lotsa kentzea eskertu diote. Hainbat identifikatuta sentitu direla kontatu digu: "Egia da ez gaudela oso ohituta, ez delako horrela eman, emakume bat bere espazioa hartzen ikustera, publikoki, jendaurrean, eta hain natural hitz egiten kontu batzuez".

SORTZAILE KAMIKAZEAK

Lan hau Erika Olaizolak atera duen arren, Kamikaz kolektiboaren barne aurkeztu dute. Bertako kide da Olaizola, Miren Gaztañaga eta Amancay Gaztañagarekin batera. 2014an aurkeztu ziren kolektibo gisa, Uxue Alberdik idatzitako *Euli Giro* liburuan inspiratutako izen bereko antzezlana taularatuz. Emanaldia bera asko zabaldu ez arren, elkartu eta ezagutzeko balio izan zien, bidaia bat hasteko. *Käffka* eta *Agur eta Dolore* antzezlanak sortu zituzten gero, baita *Zulo* film laburra ere. Orain arteko azken lana da *Panpina*.

Kolektibo honek ez du etengabe produzitzen aritzeko beharrik. Izan ere, obra guztiak ez dira hiruren lanaren emaitza: "Lanak argitaratzeko konstantziarik ez daukagula egia da. Elkarren espazioa errespetatzen dugu eta bakoitzak bere ibilbidea segitzen du. Arnas handia da hori guretzat. Etxea beti daukagu hor. Orain, adibidez, banuen nire espazioa hartzeko eta nik kontatu nahi nuen hori aurkitzeko gogoa, inoren menpe egon gabe, eta horretarako baimena eman diot nire buruari". Era berean, Kamikaz kolektiboaren baitan kokatzeari zentzua ematen dio Olaizolak, bientzat baita onuragarria.

> ***"Ez gaude ohituta emakume bat bere espazioa hartzen ikustera, publikoki, jendaurrean"***

Abenduaren 8an Lesakan ikusi ahal izango da *Panpina*. Hori da lerro hauek idazteko unean adostutako azken data. Hortik aurrerakoak, ahoz ahokoak eragindako interes eta kuriositateak bilatuko dituelakoan dago. ●

A2
Bidasoatik
Euskal herri
osora

LIBURUA

Egiazkoak zein apokrifoak

URRE URDINAREN LURRINA

JURGI KINTANA
PAMIELA, 2009

ARITZ GALARRAGA

Literatura ikerlari, ikastun, "eskukatzaile" guztien ametsa da seguru, auskalo hezea, idazle ezezagun baten aurkikuntza egitea, gutxienez idazle ezagunen baten obra ezezagunen batena, munduari deskubrimendu hori eskaintzea, mundu berri batena bailitzan. Euskaraz idatzi zuen Flaubert bat, Zola bat, Galdós bat aurkitzeak, literatura historiografiaren Olinpora sartuko luke zuzenean eta hotsandiz ikerlari, ikastun, eskukatzaile hori. Zeregin gaitza, hain zuzen, Jurgi Kintanak bere buruari ezarri diona *Urre urdinaren lilura* liburuan. *Euskal idazle galduaren bila* (1810-1940) azpitituluan, poesiaren aukera posibleago eta sinesgarriagoari jarraikiko zaio bilatzailea: "Ez ote zen egon oharkabean geratu zaigun euskal poeta nabarmenik?".

Bilaketa bat da, beraz, hemen proposatzen zaiguna, bidaia bat, eta bilaketa -bidaia guztietan gertatzen den bezala, askoz ere interesgarriagoa da helmuga baino bidea bera. Garaietan, obretan, hautagaietan barrena proposatutako hau da kitzikagarria, nahi baino epidermikoagoa, horregatik ere inspiratzailea. Helmuga, alegia aurkikuntzaren bat, edo bat baino gehiago, erdiesten duen jakiteko, liburua irakurtzea izango da onena. Baina onar bekit spoilerra: "Bilatutakoa ertzeko pertsonengan azaldu zaigu", aitortuko du bukaera partean. Gauza jakina baita ertzak beti zentroa baino puskaz interesgarriagoak direla: "Joan-etorrian zebiltzanengan, euskal-erdal ertzean, arrotz gerturatuetan eta bertoko arroztuen artean". Eta jakina den beste gauza bat, baina ez dena alferrikakoa behin eta berriz gogoraraztea: "Kultur testuinguruaren garapenak biderkatzen du autore jenialak agertzeko probabilitatea".

Izan ez ginen literatur historia loriatsua nekez osa dezakegu orain, diosku Kintanak, ez bada "euskal obra apokrifoen bidetik". Ez luke balioko gure literatur tradizioa sendoago bihurtzeko, agian, baina zer ondo pasako genukeen bitartean. Literatura jolaserako ere bada, beharrezkoak iruditzen zaizkit Kintanarena bezalako ariketak, *establishment*a apur bat zirikatzen dutenak. Horren froga garbia, kritiken hemerotekak liburuaz bildu kritika gehienek —literatura ikerlari, ikastun, eskukatzaileenak, behintzat— liburua epel xamar utzi izana. Espero dezagun guk ere, hartara, "halako aurkikuntzak ez direla faltako (egiazkoak zein apokrifoak)". ●



MUSIKA

Arratoiak akatuko du labezomorro beltza

DANI METALCRY

Rat-Zinger Bilboko Kafe Antzokian.

NO HABRÁ PIEDAD PARA NADIE
RAT-ZINGER
VOL 2. AUTOEKOIZPENA

IKER BARANDIARAN

Faxistak labezomorro beltzak bezalakoak dira; jaio, hazi eta biderkatu egiten dira gaizkia eta gehiegikeria nonahi zabalduz, baina azkenean hil egiten dira. Arratoiak, aldiz, indartu egiten dira gosean, hondakinean eta miserian; ezin ditu ezerk ez inork geldiarazi.

Faxismoa haziz doa, lotsagabe, eta kaleak hartu nahi ditu lehenbailehen. Polizia eta sistema alde ditu eta eskuinmuturraren presentzia normalizatzeko ahalegin sutsuan dihardute. Aldi berean, ezkerra desorientatuta dago eta ipar gabe aspalditik; eta, horren guztiaren aurrean, jendea, herritarrak, esperantza eta ilusio gabe. Testuinguru latz horretan egiten dute aurrera arratoiek, ezer ez eta guztia galtzeko izan arren, salbamendurik ezean erailtzen hilko direnak. Dagoeneko bi aita santu akabatu dituzte, eta faxismoren ikono ustela hilobitik atera dute. Ez da gutxi!

Hala, Erromako aita santuaren sasikumeek egurra ematen jarraitzen dute, kapitalari ahalik eta min handiena eragiten. Hamar urte dira estoldatatik atera zirela eta haginka are eta amorru handiagorekin egiten dutela ospatzeko, *No habrá piedad para nadie* bigarren bilduma kaleratu dute.

CDak lau abesti berri dakartza: *Soy un malnacido* autobiografikoa, zeinetan Eskandinaviako ezkerraldeko gitarrak, hardcore-punka eta thrash ukituak batu dituzten; punk-rock azkarreko *Polvo* irmoa; egurra jasotzen duen *Días de comisaría,* tentsio handiko Motörheaden trazako pieza; eta bere onetik ateratako *Aullo al sol,* abiadura handiko hard-rock kaletarra.

Gainera, *Rock´n'Roll para hijos de perra* diskotik deskartatutakoak ere badira: *Plumas y alquitrán*, hardcore-punk eta punk-rock gitarrero zikin eta biderkatua; eta *Cuando venga a por mi* kaleko rock balada sinesgarri eta gordina, hain zuzen ere.

Horrez gain, *Larga vida al infierno* diskoko *Uno de los nuestros* eta *Larga vida al infierno* berriro grabatu dituzte; eta beraien beste klasiko batzuk ere batu dituzte.

Bilboko talde apokaliptikoak ez du inoiz arnasa hartzeko geldiunerik egiten eta azaro honetan zuzeneko diskoaren grabaketa egin du Bilboko Kafe Antzokian. ●

Kurduen kemenaren oihartzuna

DABI PIEDRA **SUARGI ELKARTEA**

Kurdistango Rojava eskualdean Turkiak hasi duen eraso militarrak kulturari ere eragin dio. Daesh beren lurretatik bidali eta gero kurduek martxan jarritako gizarte demokrata, berdinzale eta anitzaren zutabe nagusietako bat da kulturaren sustapena. Militar turkiarren mehatxuak baina, kolokan jarri du apustu ausart hori. Esate baterako, Rojavako Nazioarteko Film Jaialdia bertan behera utzi behar izan dute. Gerrak zapuztutako ekinaldi horren oihartzuna, baina, mundu guztira heldu da, baita Bilbora ere.

Kurdistan Begiratuz zikloaren laugarren edizioa Rojavako egoera salatu eta elkartasuna adierazteko ekitaldi bihurtu dute antolatzaileek. Azaroko hiru asteartetan, Kurdistanen inguruko hainbat film ikusi ahal izan dira Bilboko Zirika gunean, Rojavako Film Jaialdiaren ikurra lekuko isil dela. Azken eguneko saiora joan gara, emanaldi bikoitza iragarrita baitute.

Lehenengo filma, Azad Evdikê zinemagile kurduaren *Sîka Çiya yê Kurmênc*, gaurkotasun bete-beteko istorioa da. Armada turkiarrak Rojavako lurretan egin bitartean filmatuta dago, Afrin barrutian. Turkiarrak hurbildu ahala, hiriko eguneroko bizitza nolakoa den erakusten du, etsipenak eta kemenak erdibana hartutako gizarte baten irudi zehatza emanaz.

Turkiarrek suntsitutako herrixketako iheslarien, ospitaleko langileen zein herritar arrunten ahotsak eusten dio filmaren hariari. Gatazkaren alderik gordinena erakusten du *Evdikêren* dokumentalak, eta, hala ere, Afringo kurduek amore emateko asmorik ez dute.

Bigarren filmak, *Iraultzaren haziak* delakoak, Euskal Herriko ikuspegia dakarkio Rojavako gatazkari. Durango eta Kobane senidetuta daudenez gero, hemengo lau emakume Kurdistango hiri hartara joan ziren, eta ikasitako guztia batzen du Suargi elkarteak sustatutako filmak.

Bereziki, emakumeek Kurdistango aginte aurrerakoiari esker hasi duten berdintasunerako bideak harritu eta poztu ditu euskal ordezkariak. Hango ordezkari politikoek azaldu diete Emakumeen Legea indarrean jarri dutela, emakume eta gizonen arteko berdintasuna ezarri ez ezik, emakumeak gizartearen parte aktibo bihurtzeko. Kaleetan, gauzak egiten, erabakiguneetan egon behar dira Kobaneko emakumeak.

Kurduen patua beti borrokan aritzea dela dirudi. Rojavan ez ezik, Iranen menpeko Rojalat eskualdean ere bai. Bilboko saioan hitza hartu zuen Maryam Fathik, bere jaioterrian Irango gobernuak hasi duen sarraskia salatzeko. Internet moztuta, komunikabideak etenda... Rojalateko borrokaren berri emateko bidea Fathi eta beste kurdu batzuen lekukotza da. Baikortasunik ez bere hitzetan, "kurduok ez dugu gerrako beste frente bat behar, baina Iranen gauzek hala segituz gero...". ●

ZINEMA KURDUAREN IV. ZIKLOA

NOIZ: Azaroak 18
NON: Bilboko Zirika gunean

Gurutzegrama



EZKER-ESKUIN:

1. Tren bateko orga. Argal, estu. **2.** Itxaron. Dira, bizkaieraz. **3.** Gorengo. **4.** Guztira. **5.** Doministiku. Haizezko zurrunbiloak. **6.** Hegal, izkina. Atzera egitea. **7.** Gaixo, errukarri. Basagudari, gerrillari. **8.** Zerbait osatua dagoen era. Joko batean esku hartzen duena.

GOITIK BEHERA:

1. Egon bedi. Aurrizki ekologista. **2.** Konparazioetako atzizkia. Dohatsu, zorioneko. **3. Argazkiko zuhaitza**. **4.** Maitasun, amodio. **5.** Zein tokitan. Ez eme. **6.** Dut, Gipuzkoan. Kantitatea adierazteko atzizkia. **7.** Mingostu. **8.** Erorka. **9.** Helioa. Nafarroako udalerria, Gipuzkoako mugan. **10.** Gabezia. Asiako estatua. **11.** Pertsona-multzo handia. **12.** Egurra mokoaz zulatzen duen hegazti, eta arboletan harrapatzen dituen intsektuez elikatzen dena. **13.** Kontserbak edukitzeko, latorriz egindako ontzia. **14.** Zuhaitzaren beso. **15.** Kausa.

Sudokua

ERRAZA

4								
	7		2		1		9	4
1			4	8	6		7	
		7		5				
3	9		7		4		1	2
				1		5		
	2		5	9	3			6
9	4		6		7		5	
								3

ZAILA

	1			2	5	6		
	5	7		3		2		
2			8					
3			5	7				
7	9						5	8
				8	2			4
					3			7
		9		6		8	3	
		3	2	5			9	

Esaera zaharra

KOKA EZAZU PUZZLEAREN PIEZA BAKOITZA BERE TOKIAN ETA ESAERA ZAHAR BAT AGERTUKO ZAIZU.



Anagramak

HITZ BAKOITZAK AURREKOAK DITUEN HIZKI BERAK DITU, BAT IZAN EZIK, BAINA BESTELAKO HURRENKERAN.

Irmo, finko	**FERMU**
Aldarte	
Seme nagusi	
Zakar	
Putz, sabel-haize	
Gai, zer	
Su eman, piztu	
Nori	
Urratsak emanez	
Gorengo alde	
Gaizto	
Motel	
Era, modu	**MOLDE**

EBAZPENAK

ATSOTZITZA

ABENDUKO ELURRA, GAZTA ZAHARRAREN PARE.

ANAGRAMAK

FERMU
UMORE
PREMU
MUKER
UZKER
ZERKI
IZEKI
ZEINI
OINEZ
GOIEN
DONGE
GELDO
MOLDE

ZAILA

9	1	8	7	2	5	6	4	3
4	5	7	6	3	1	2	8	9
2	3	6	8	9	4	7	1	5
3	8	4	5	7	9	1	2	6
7	9	2	4	1	6	3	5	8
1	6	5	3	8	2	9	7	4
8	2	1	9	4	5	3	6	7
5	4	9	1	6	7	8	3	2
6	7	3	2	5	8	4	9	1

ERRAZA

4	6	2	9	7	5	3	8	1
5	7	8	2	3	1	6	9	4
1	3	9	4	8	6	2	7	5
6	1	7	8	5	2	4	3	9
3	9	5	7	6	4	8	1	2
2	8	4	3	1	9	5	6	7
8	2	1	5	9	3	7	4	6
9	4	3	6	2	7	1	5	8
7	5	6	1	4	8	9	2	3

GOITIK BEHERA: 1. BAGOI, MEHE, 2. EGON, DIREZ, 3. GORENEKO, 4. OROTARA, 5. USIN, ZIRIMOLAK, 6. ERTZ, ATZERAKADA, 7. KOITADU, SASITAR, 8. OSAERA, JOKALARI.

ESKER-ESKUIN: 1. BAGOI, MEHE, 2. EGON, DIREZ, 3. GORENEKO, 4. OROTARA, 5. USIN, ZIRIMOLAK, 6. ERTZ, ATZERAKADA, 7. KOITADU, SASITAR, 8. MIKAZTU, 8. ERORIZ, 9. HE, ARESO, 10. EZA, IRAK, 11. MASA, 12. OKIL, 13. LATA, 14. ADAR, 15. KARI.

Vicky Miró Julià

KULTURA DIGITALA AZTERGAI

SAREA, EZAGUTZA-BIDE

"Kazetaritza ikasketak amaitu nituenean Internet askatasun, jakintza, eta autoezagutza espazio bat zen; kultura kolaboratiboa nagusi zen gune hark katigatu ninduen. Kazetaritza digitalean murgildu nintzen, eta gutxira agertu ziren Wikileaks eta Snowden auziak, edo Facebook eta sare sozialen indarra. TV3 telebista kateak gaian sakontzen jarraitzeko aukera eman zidan, eta erakargarria izaten ari da, gizartea geroz eta kontzienteago baita teknologiak geure bizitzan duen garrantziaz. Aritzen naizen esparruari etiketak jartzekotan, kultura digitalarekin sentitzen naiz eroso, teknologiaren erabilerak gizartean eragiten dituen aldaketak interesatzen baitzaizkit niri".

"Urriaren 1a osteko xake partida jokatzen ari da Tsunami Democràtic"

2003an Ramon Llull unibertsitatean kazetaritza ikasketak amaitu ondotik, TV3 telebista katean teknologiaz eta kultura digitalaz solastatu da azken hamabost urteetan Vicky Miró Julià (Bartzelona, Herrialde Katalanak, 1981).

SAIOA BALEZTENA **JORDI BORRÀS**

Sententziaren kontrako protestak bateratzeko aplikazio berritzailea sortu du Tsunami Democràtic egitasmoak. Zer deritzozu?
Manifestarien artean komunikazio bide *premium* gisa erabili da orain arte. Jonquerako mugaren mozketan, adibidez, mozketa egingo zen tokitik gertuen zeuden erabiltzaileak abisatu zituzten lehendabizi app-aren bitartez, eta ondoren, deialdia zabaldu zuten Telegram eta gainontzeko sare sozialetan. Poliziarekiko ustekabea eta aurrerapena bilatzen ditu. Eta ez hori bakarrik, deialdiaren jakinarazpena jasotzen duten erabiltzaileak konfiantzazkoak dira, Tsunami Democràtic-ek azken asteetan geo-kokalekuak monitorizatu dituelako, jokabide susmagarridun erabiltzaileak baztertzeko.

Zein uste duzu dela aplikazio horren gakoa?
Ezaguera teknologiko aurreratua eta aurreikuspena. Euren jarduna aztertuta, argi dago denbora luzez prestatu duten aplikazioa dela. Urriaren 1a osteko xake partida jokatzen ari da sarean Tsunami Democràtic. Bizitu dituzte webgune ofizialen itxierak —erreferendumarena edo ANC eta Òmnium Cultural elkarteena—, "On votar?" aplikazioaren itxiera, zerbitzarien kontrako erasoak, hacktibisten atxiloketak... Argi dute zer duten jokoan. Horregatik, teknologikoki oso ongi babestuta daude; ahulgunea, beti bezala, pertsonak dira.

Hasieratik, interes bizia egon da Tsunamic Democràtic ere ixteko. Zer deritzozu?
Adituen arabera, kasik eraitsi ezina da. Duela gutxi, Applek Hong Kongen zentsuratu zuen bertako aldarrikapenen mapa eskaintzen zuen aplikazio bat. Tsunami Democràtic-en sustatzaileek hori saihestu nahi izan dute. Horregatik, app-a ezin da jaitsi ez Googlen ezta Applen ere. Sortzaileak ez dira identifikatu, eta deskargatzeko, erabiltzaileak ez daude enpresa handi horien menpe. Beren baliabideak erabiltzen dituzte.

Badago uste duenik, Tsunami Democràtic-en eta urriaren 1eko egituren atzean jende berbera dagoela.
Zentzua du. Esan daiteke ekintzak

erabaki eta antolatzen dituen elite bat dagoela, jende kopuru mugatu bat. Badago, baita, ekintzak egiten diren eremuetan babes logistikoa ematen duen jendea ere. Eta noski, gero badago gizartearen zenbateko garrantzitsu bat ere, gutxienez egitasmoez jakitun izan nahi duena: Telegram-en 400.000 jarraitzaile dituzte, hori Kataluniako hiritarren %5a baino gehiago da. Baina noski, baliteke, era berean, urriaren 1ean jarraitutako eskemak aztertu eta ikasi duen jendeak sortu izana Tsunami Democràtic.

Nola finantzatu daiteke sofistikazio maila horretako app bat?
Esango nuke alde ekonomikoa ez dela garrantzitsuena, kausaren alde norbere ezaguera eta denbora eskaini nahi duen jendea dagoen bitartean.

Bitartean, Espainiako Gobernuak segurtasun digitalaren dekretua onartu zuen, hauteskundeen atarian. Zertarako?
Ordena publikoa mehatxatzen duenari, agindu judizialik gabe konexioa mozteko boterea ematen dio dekretu horrek. Horren barruan nahi duten guztia sartu dezakete. Eskubide eta askatasun digitalen kontrako arrisku-saltoa da. Desordena publikoak eragin ditzaketen manifestazioen eremuetan, Internet konexioa itzali ahal izango den testuingurura garamatza...

Zertan desberdintzen dira botere hori eta dagoeneko enpresa handiek gure datuekiko duten kontrola?
Vodafone edo Googlek, adibidez, uneoro dakite non gauden, zein informazio edo webgune erabiltzen ditugun eta noiz gauden konektatuta. Baina enpresa horien arriskua ez da zentsura, baizik eta



"TEKNOLOGIKOKI OSO ONGI BABESTUTA DAUDE; AHULGUNEA, BETI BEZALA, PERTSONAK DIRA".

geure informazioa interes komertzialak asetzeko erabiltzea. Egia da, baina, Estatuak eskaera batekin euren atea jotzen badu, azkar amore ematen dutela...

Gatozen berriro ere dekretura. Internet konexioa moztu dezakete, baina zein puntutaraino daude arriskuan komunikabideak?
Dekretua informazioaz eta edukiez haratago doa: Espainiako Gobernuak Internet sostengatzen duen azpiegitura fisikoaren kontrola izan dezake. Zentzu horretan, soilik %100ean analogikoa den komunikabidea bazara zaude salbatuta.

Antzeko dekreturik bada inguruko herrialderen batean?
Galdera hau adituei egin diedanean, Txina eta Turkia aipatzen dute. Hala ere, eta baikorrak izatearren, gisa honetako presazko dekretu bat onartu ahal izateko, ezinbestekoa da Estatuko Aldizkari Ofizialean (EAO) publikatu ondorengo 30 egunetan Kongresuan onartzea, bestela, automatikoki indargabetzen da.

Bukatzeko, gauzak horrela, zein uste duzu dela adierazpen askatasunaren osasuna, gaur egun?
Espainiako Estatuan larria da adierazpen askatasunaren osasuna, eta Mozal Legearen agerpenaz geroztik, garapen kaltegarria du. Rap kantarien kontrako espetxe zigorrak, txotxongilolarien atxiloketak eta umoristen kontrako salaketak ikusi ditugu. Tira, Internetek agintariak amorraraziko ditu, kontrolatzeako esparru zaila baita. ●

BIDALI ZURE HARRIKADAK: **BERANDUEGI@ARGIA.EUS**

Asteburuetako mariatxiak euskaltegian matrikulatu ditu ETBk, kritikak ekiditeko

"EUSKARA NAZIOARTERATZEKO ESTRATEGIKOA DA URRATS HAU", ADIERAZI ZUEN IÑIGOK, PANCHO ETA BINGENEKIN BATERA LEHEN KLASE EGUNEAN.

Pancho Juarez, Tenoch García eta Rodrigo Zelayetarentzat aste berezia izan da hau: Mexiko DFko euskaltegian lehenbiziko klaseak hartzen hasi dira. Urtebetean euskaraz kantatzeko gai izatea da hiru mariatxi hauen helburua. "Nola ez dugu ba ahalegin hori egingo, euskaraz kantatzen duten taldeek baino entzule euskaldun gehiago dauzkagu-eta ETBri esker! Asteburuero-asteburuero jartzen dituzte gure kontzertuak, baita txar samarrak ateratzen zaizkigunean ere. Ze jatorrak Barinaga lizentziatua eta beste denak". Mariatxien euskara-klaseek zenbait berezitasun izango dute. Adibidez, Xabier Saldias hilabetean behin beraiekin bilduko da rantxerak tirolesekin nola uztartu erakusteko eta Gaur Eguneko gidoigileek ere musikariekin elkarlanean jardungo dute, Arantza Tapia nola aipatu irakasteko. ●

SAREAN ARRANTZATUA

Matxurretarako bernea

Irudia: @agara

Elkarren arteko zaintza

SERGIO ETA BINGEN, "BI HERRI BORROKA BAKARRA" KANPAINAREN AURKEZPENEAN.

"Espainiak San Mamesen jokatzeak ekarriko du euskal selekzioaren ofizialtasuna"

Gizonezkoen futbol selekzio espainiarrak San Mamesen jokatuko duela-eta, "oso pozik" agertu da Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburu Bingen Zupiria; ez soilik Bilbo eta inguruak espainiar banderez beteko direlako, edo futbolaren aitzakian zientoka polizia nazional, guardia zibil eta militar etorriko delako gurera. Ezta Euskal Herri osoan langabezia-tasa zerora eramango duen inpaktu ekonomiko izugarriagatik ere; baizik eta "Espainiak San Mamesen jokatzeak ekarriko du-elako euskal selekzioaren ofizialtasuna". Aspaldian du Jaurlaritzak ideia hori buruan: "Bai, begira, FIFAk eta Nazio Batuen Erakundeak ikusten dutenean zein abegikorrak garen gure hurkoekin, nolako normaltasunarekin geureganatuko dugun espainiar nazio batuaren aldeko sinbologia guztia, zuzenean emango digute ofizialtasuna, esker on gisara, lehenago ere hainbat gauza eman diguten bezala, espainiar demokraziaren alde egin dugun bakoitzean". ●

Euskaraz amets egin, ikasi, idatzi, lan egin, maite-mindu, jolastu, gozatu, sentitu...
zu zeu izan Kutxabanken ere, **bizi euskaraz**.

Aukeratu euskara Kutxabankeko harremanetarako.
Galdetu zure bulegoan.

Abenduak 3.
Euskararen Nazioarteko Eguna

Kutxabanken Hizkuntza Politika ikusi hemen:
www.kutxabank.eus

Kutxabank, S.A., Kale Nagusia, 30-32, Bilbao, IFK A95653077. Bizkaiko Merkataritza Erregistroan inskribatuta. 5226 Tomoa, 0 Liburua, BI-58729 Orria, 1 Folioa, 1. Inskripzioa.

ura
ur agentzia
agencia vasca del agua

Ingurune urtarra
bizitzaz blai dago.
Zain dezagun, beraz.
Gure hobe beharrez.
Baita bertan bizi
direnen alde ere.

Euskaraldiaren bigarren edizioan gehiago, gehiagorekin eta gehiagotan egingo da euskaraz.